

...eta Kitto!

2017-I-20

1.000 zkia.

1000 esker danori!!!



R.F.S. 175/15 I.L.G.

**MERKE
ALDIAK**

Gama altuko
2 mō betaurreko
progresibo
177€

aurretiko prezioa: 197€

www.multioplicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • ERRENTERIA
IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabilti.

Gure betaurreko
guztiak bilduma
berrietakoak dira



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALA:
Idurre Iriondo

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.200 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Gauza bakarra nahi dut: Askatasuna –

Eraso ia perfektua izan zen, ia maisu lan bi-kaina. Horrela hasi zen dena. Maite duzuen norbait salatuko zenuketela uste duzue? Ez, ezta? Ba bazuetan ez dago beste irtenbiderik. Pertsona batek "maite" zaituenean eta zuk bera ez, eta pertsona horrek bion artean ez dela ezer egongo ulertzen ez duenean –nahiz eta zuk argi eta garbi azaldu–, hurrengo gerta daiteke: pertsona horrek zu jartztea, kontrolatzea, zelatatzea, iraintzea, zenbait gauza debekatzeko saiatzeko, mehatxatzea... Baina, aldi berean, maite zaituela eta berarentzako garrantzitsua zarela esaten dizu. Zer gerta daiteke orduan? Gertatzen ari dena sinetsi nahi ez izatea, edo egoera ezin duzu gelditu eta salaketa jarri behar izatea (nahiz eta begiak zabaltzea asko kostatzen den).

Bai, jaun-andereak. Hori guztia niri gertatu zait. Oraindik askatasuneranzko borrokan jarraitzen dut, oso zaila izan arren. Hainbat epaiketaren ostean urrutze-agindua lortu nuen. Teorian ezin zait 200 metrotera hurbildu. Zer gertatzen da? Justizia oso

geldoa dela eta, lekukorik ez badago, zaila dela gauza asko egiaztatzea. Beraz, salaketa gora salaketa beheara jarraitzen dut, nik behar dudana lortu arte: **askatasuna**. Niretzako askatasuna "nahi dudana" egitea da, nahi dudana momentuan eta irainak eta erreplikak entzun beharrik gabe. Niretzako edozein gauza –taberna batean ardo bat hartzea irteeta, esate baterako– tortura bihurtu da. Urduritasuna, segurtasun-eza eta beldurra nagusitu dira nire bizitzan.

Hilko nauela esan dit, nire inguruko pertsonen min egiten saiatu da, beldurra sortu dit, segurtasun-eza, nerbioak... **Ezin dut txakurra kalera aterra beldurra sentitu gabe!**

Normala da egoera hau? **Ez**. Gauza bakarra nahi dut, hegoak ez diezaiotela inori moztu, oso mingarria da-eta. Genero-indarkeriaren kontra elkartu behar gara. Matxismoaren kontra borroka egin behar dugu, ziur nagoelako nire moduan milaka lagun daudela.

A. G. R.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LELO.- Tonto, tentel. Generoa desberdindu egiten da: lelua, lelia. "Ez zaittezt lelia izan eta juan eta eskutu kopiña".

LELO USAIÑA ERABILLI.- Lelokerietan dabilenari esaten zaio. "Lelo usaiña badarabiztu behintzat!".

LELOKERIXA.- Inuzentekeria, tentelkeria, leloak egiten duena. "Oin esan duzuna, lelokerixia; eta galanta".

astean esanak

"Euren gorputzaren irudierekin arazoak dituzten emakumeak laguntzeko programa dugu martxan eta aldi berean azafata hauek ari gara jartzen Tour Down Under moduko txirringarritza probetan. Inkongruentea da guztiz. Motor lasterketetatik ere kendu ditugu, proba hauetara datozen neska eta emakumeak inspiratu nahi ditugulako pilotuak, mekanikoak edo ingeniariak izan daitezten, eta ez podiumeko azafatak"

(JAY WEATHERIL, AUSTRALIA HEGOALDEKO GOBERNUKO KIROL MINISTROAK)

"Cherleader-ik gehiago ez erabiltzeko ez diegu saskibaloi kazetariok klubei eta ligei behar bezain sarri exijitzen. Estudiantesen ereduari jarraitu behar genioke: zuzendaritzak duela hamar bat urte emakumezko dantzariak kontratatu, eta asteburu bat baino ez zuten iraun. Ez ziren kazetariak ikuskizuna onartezintzat jo eta baztertu izan zedin ahotsa altxatu zutenak, ordea, zaleak berak baizik. Plaza bakoitzean errepikatu beharko litzatekeen eskakizuna da. Baskoniari buruz dihardugunak, jokalariek eta harmailak betetzen dituztenak pipertu ezean, inork ez du cherleader-ak erretiratzeko presiorik nabariko"

(DANEL AGIRRE, KIROL KAZETARIA)

"Poesiari, iragarki batek ederki esaten zuen moduan, bertso esaten zaion herri erdi agraro batean bizi gara; bere hizkuntzari, mila modu zein baino zein koloretsuagoetan, etengabe maitasun zintzoa adierazten zaion arren, haren noranahikotzean benetan sinestera iritsi ez den herri batean, beti erkin eta gaixo maite izan duelako eta halaxe maite izaten jarraitu nahi duelako; euskaraz aritzean, inguruko erdaretan aritzean ez bezala, dotorezia eta pedanteria bereizten dituen langa nerri beherenataraino jaitsia duen herri batean. Neuk ere harrapatu izan dut neure burua 'ikusi zaitut' esan beharrean 'ikusi dizut' esateko zorian"

(JUAN LUIS ZABALA, IDAZLEA)

Debabarreneko eskintza turistikua izan da FITURen

Domekara arte zabalik egongo dan FITUR Madrilgo Nazioarteko Turismo Azokaraño eruan dabe gure eskualdeko eskintza turistikua oinguan be. Ediziño honetan aparteko garrantzixa emon nahi detse Turismo Jasangarrixari eta, horregaittik, gure eskualdia *"naturaz eta turismo jasangarriz gozatzeko helmuga modura"* promozionatzen ahaleginduko dira, horri esker bisitari asko erakartzeko asmuarekin. Euskadi-Basque Country standaren barruan, Euskal Kostaldeari eskindutako txokuan emongo dabe Debabarreneko erakargarritasunen barri: proposamen turistikoko desberdiñen gaiñeko informaziñua, eskualdeko herrixerri buruzkua... beti be gure eskualdeko baliabide turistikoko nagusiña, Mutriku, Deba eta Zumaiak osatzen daben Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkeari garrantzixa emonda. Horrekin batera, azokara gure eskualdetik juandako ordezkariak aurten 10 urte beteko dittuan Eibarko Armagintzaren Museuaren barri be emongo dabe.



Museuaren 10 urteriko eskindutako bideuaren aurkezpena egingo dabe

Portaleko 5. pisuan Armagintzaren Museoa zabaldu zutela 10 urte beteko dira aurten eta, horren harira, hainbat jarduera antolatu dituzte. Zapatuan bertan, 12:30ean, hamar urte hauek jasotzen dituen bideoren aurkezpena egingo dute Armagintzaren Museoan. Horrekin batera, erakusketa iraunkorra ezagutzeko doako bisita gidatuak egingo dira, 17:00etan euskaraz eta 18:30ean gazteleraz. Talde bakoitzeko 20 lagun izango dira. Aldez aurretik, izena eman behar da 943-708446 telefonora deituta edota museoa@eibar.eus helbidera mezua bidalita. Eta, horrez gain, museoa kaleraino eramateko asmoz, San Andres eliza inguruan XV. mendeko tornua ikusgai ipini dute, horrela jendeak sasoi hartan tailerretan nolako makinekin jarduten zuten ikusteko aukera izateko.



biztanle dakaz Eibarrek gaur egun; 14.180 andrak dira eta 13.316 gizonak; 2014. urtian 27.440 biztanle zittuan; 2015ian 27.414; eta 2016xan 27.493.

Armerixan hitzaldixa emongo dau Juanjo Alvarezek otsaillaren 1ian

Armerixa Eskolaren "Ondo egindako lana" programaren 8. saiua otsaillaren 1ian izango dala aurreratu dabe antolatzailliak. Egun horretarako gonbidatua Juanjo Alvarez izango da: Eibar kirol elkarteko jokalarixa izandakuak ibilbide akademiko bikaiña egin dau.



Nazioarteko Zuzenbidian lizentziatu eta gero, 2000. urtian EHU-ko Nazioarteko Zuzenbide pribatuko katedra eskuratu eban, oposiziño bittartez. Espezialidade horretako lehen katedraduna ez eze, gazieta be izan zan, katedra 36 urte zittuala eskuratu eban eta. Bestiak beste Bergarako UNED-en zuzendari akademikua izan zan 1996tik 2010era bittartian eta, horrekin batera, ikastaro zuzendari modura zein hizlari modura oso ibilbide luze eta oparua egindakua da. Bere curriculum bikaiñarengaittik sarixa emon zetsan Eusko Ikaskuntzak 2015ian.

Herri-galdeketa aurkeztuko dau bixar GED-k

Maiatzaren 7xan Debararrenian egingo dan herri-galdeketa aurkeztuko dau bixar Gure Esku Dago ekimenak, 12:00xetan Portalean. Ekitaldixan esango dittuenetako batzuk aurreratuta, ekimeneko ardura-dunak diñuezen, "herri-galdeketa prozesua antolatziak biharra eta konpromisua be eskatzen dittu, bidia danon artian adostu bihar dogulako eta holan danak prozesuaren parte sentidu ahal izateko". Hiru fase nagusi zihertzu dittue: "Ehundu" izenekuaren barruan, siñadurak bildu nahi dittue, "herritarren borondatia eta babesa batzeko". Galdeketa zillegitasuna izateko, Debararrenian gitxienez 4.400 siñadura lortu bihar dittue eta horretan dihardue. Eibarren eguen eta barixakueta jua leike Deporrera siñatza, 19:30xetatik 20:30xetara eta, bestela, Arrate Kultur Elkartean astero egitten daben billerara be jua leike (martitzenetan 19:00etan). Epia otsaillaren 17xan amaittuko da; bigarren fase batian, galderia danon artian adosteko prozesuerei ekingo detse herririk herri; eta hirugarren fase batian erabagitzeko tartia zabalduko da. Asmo horrekin egingo da maiatzaren 7ko ekitaldixa, 16 urtetik gorako 46.500 herritarreri hitza emoteko.



Urteberriko Sarixa

Bestalde, Urteberriko Sarixaren zozketia egin zan astelehenian eta 30.000 euroko sari nagusixa Enkarterrietara jua da (55.513 zenbakixak jasoko dau). Horrekin batera 1.000 euroko beste 10 sari be zozketatu zittuen: 158.639 (Araba), 097.686 (Uribe Kosta), 089.983 (Ezkerraldea), 129.784 (Urola Kosta), 029.273 (Uribe Kosta), 145.022 (Debarrena, Eibarren saldu zan), 020.987 (Tolosaldea), 082.542 (Bilbo), 124.071 (Urola Kosta) eta 117.574 (Goierri).

Debegesa eta Geroaren arteko hitzarmena

Eskualdeko ekintzaillieri mikrokredituak emoteko hitzarmena siñatu dabe Debegesak eta Geroak oingo astian. Ekimenarekin Debararrenian ekintzailetza eta enpresa barrixen sorreria bultzatu nahi dabe eta, hitzarmenari esker, Geroa-ko bazkide diran Deba-

barreneko ekintzailliak euren enpresa-idea garatzeko kreditua eskuratu ahal izango dabe. 8.000 eta 20.000 euro bittarteko mikrokredituak emotia aurreikusit dabe eta, finanziaziñua eskuratu ahal izateko, bestiak beste, Debegesak onartutako bideragarritasun pla-

na izatia eskatzen dabe. Garapen agentziak plan hori egitteko laguntasuna eta aholkularitza eskinduko detse. Ekimena gure eskualdeko zortzi udalak Debegesaren bittartez ekintzaillieri eskintzen detsen arreta zerbitzu integrala osatzera dator. Interesa izanez gero Debegesarekin kontaktuan ipiñitta eskuratu leike informaziño gehixago, ekintzaile@debegesa.eus helbidera idatzitta edo 943 82 01 10 telefonora deittuta (Jaione Leibar).

Geroako ekintzailliak euren enpresa-idea garatzeko kreditua eskuratu ahal izango dabe.



autuan

AFESD-en txosna

Domeka illuntzian Bartzelona taldea hartuko dau Ipuruan Eibar Kirol Elkarteak eta, horren aitzakixarekin, AFESD, diagnostiko barik gaixorik duguaz umien alkartiak merkadillua eta txosna ipiñiko dittu Untzagan, udaletxeo arkupietan, 12:00xetatik aurrera. Alkartiarendako dirua batzeko asmuarekin, pintxuak eta edarixa saltzen ibilliko dira eta, horrekin batera, Andres Iniestak siñatutako Barçaren kamisetia zozketatuko dabe: rifak euro batian salduko dittue eta sarixa ONCE-ren asteleheneko zozketan urtetzen daben zenbakixaren azken 3 numeruak dittuanak eruango dau.

Sahararako bilketia

Piztu Itxaropena karabanarako janarixa batzen hasitta dagoz eta, urteroko moduan, Eibar-Sahara alkartekuak be kanpaiñarekin bat egin dabe. Lagundu nahi dabenak hillaren amaiera arte eukiko dau aukeria. Eibarren, Eroskin (Urki, Ipurua eta Urkizun), El Corte Inglesian, Isasi okindegixan, Villalban eta BM supermerkaian dihardue kanpamenduetara bidaltzeko produktuak batzen.

Misterixo-jardunaldixak

Euskal Herriko I. Misterixo Jardunaldixak hartuko dittu Coliseo antzokixak otsaillaren 25 eta 26xan. Antolatzaillen artian Luis Uriarte (Asepa, Arabako Parapsikologia Ikerketarako alkarteko kidea), Enrique Echazarra (idazle eta ikertzaillia, "Cuarto Milenio" saioko kolaboratzaillia) eta Sergio Ruiz eta Elena Gil ("El Universo por Descubrir") dagoz. Informaziño gehixagorako www.jornadasdelmisteriodelpaisvasco.com helbidian begiratu.

Untzagako jubilauek

Untzagako jubilauek etxeuak datorren asteko eguaztenian (25jan) egingo dau urteko batzarra, 17:00etan. Agurrarekin hasi eta jarraixan, diru-kontuak aurkeztuko dittue, zuzendaritzako kidiak aurkeztu eta proiektu barrixen barri emongo dabe. Gaixak inportantiak dirala eta, bazkidieri juateko dei egin nahi detse.

Gureak-ekuak ederto ibilli ziran Auzokoak alkartekuak eskindutako bazkarixan

Urteroko moduan, aurten be Auzokoak Urkizuko alkarre gastronomikuen alkartariak (Edozer, Dorrepe, Jaiki, Urkusu-Gain, Erdibana, Denon Sahatsa eta Bekuak) Gureak taillarrekuendako bazkarixa antolatu dabe aurten be. Aurreko zapatuan izan zan bazkarixa, Erdibana alkartian, eta bazkalostian dantzaldixa eta oparixen zozketia egin zittuen. Juandako guztiak, gonbidatuak zein dana preparatzen ibilli ziran boluntariuak, ederto pasau eben eguna. Zelako girua egon zan ikusteko, etakitto.eus webguneko mediatekara sartu leike, nahi daben guztiak ikusteko aukeria izateko argazki-bilduma eskuragarri dago eta. Bestalde, antolatzailliak bazkarirako lagundu daben enpresa eta erakundieri eskerrak emon nahi detsez: Kaiku, Eibar KE, Euskadi Irratia-Eitb, El Corte Ingles, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eroski, Kutxabank, Distribuciones Vicuña, Esteban Oroz, Solera Eibarresa, Urkizuko Arriola Kioskoa, KE-2010 (Ketesa), Eibarko Udala, EAJ-PNV, Urkotronik, SPRI, ...eta kitto! Euskara Elkarte, Seguros Zurich Lejardi, Kirolbet eta Club Sibaris (Coloniales Anselmo Gonzalez).



Oparixen zozketia egin zan bazkalostian. **Maialen Belaustegi**

Aurrekontuak eibartarren premiñiak betetzen ez dittuala diño Bilduk

Aste honetan emondako prentsaurrekuan, EH Bilduko udal ordezkariak PSE-ren eskutik jaso daben aurrekontu proposamena kritikau eben: *"lazko moduan, bape ausarta ez dan aurrekontu honek ez detsa lehentasunik emoten Eibarrrek dittuan erronka sozial eta ekonomikueri. PSE-k bere horretan jarraitzen dau, ez dago inñolako barrikuntzarik eta, badirudi PSE gaiñontzeko alderdixen proposamenen zain daguala, presupuestua horrekin aberasteko"*.

Salatu ebenez, aurrekontu proposamenak jasotako partiden artian inportantienetakua politikuen dieta eta liberaziñueri lotutakua da: *"Atal horretarako 860.135 euro aurreikusi dittue. Konparatziarren, ehundaka famelixeri premiña larrixenetan laguntzeko aurreikusittako kopuria*



366.137 eurokoa da. Nola leike horrenbeste famelixen Gizarte Larrialdixetarako Laguntzen partida, 21 ziñegotziren Dieta eta Liberaziñuak ixa hirukoitzia? Lotsagarrixa begittantzen jaku eta, horregaittik,

HITZALDIA
PORTALEAN areto nagusian

Urtarrilaren **26**
18.00etan

Hizlariak
IDOIA IBERO eta **Aiert LARRARTE**

Gaiak
Ibon Muñoaren egoera
Salbuespeneko legedia
Dispersioa
Gaixo larriak
...

IBON ETXERA!

Sarek antolatutako hitzaldixa eguenian

Eibarko Sarek martxan daukan *"#SalatzenDut / Ibon Etxera!"* kanpaiñaren barruan, hitzaldixa antolatu dabe urtarrilak 26rako (eguenarako), 19:00etan Portalean (areto nagusian). Hizlariak Idoia Ibero (Sareko kidea) eta Aiert Larrarte (abokatu) izango dira eta, antolatzailliak aurreratu dabenez, *"Ibon Muñoaren egoeria abiapuntu modura hartuta, Estatuko legedi arruntak, Europako legedixak eta Mandela arauak (ONU) diñuenari buruz jardungo dabe batetik eta, horrekin batera, euskal presuen benetako egoeria (salbuespeneko legedixa, FIES artixuak, dispersiñua, gaixo larriak...)* zelakua dan azalduko dabe".

aurten be dietak 313 eurotik 60 eurora jaiosta proposatuko dogu".

Horrekin batera, eskillera mekaniko eta igogailluen mantenurako diru-partida (557.503 eurokoa) be larregizkua dala pentsatzen dabe eta atzera be aurpegiratu detse udalari igogailluen aldeko apustua askoz aurretik egin biharra eguala, "igogaillu publikuak eskillarak baiño merkiaguak ez eze, erabilgarriaguak be diralako". Bestalde, aurrekontuak "guretako oso inportantiak diran hainbat proiekturako (Ekocenterra martxan ipintzeko, Plan Estrategikua aurrera eruateko...) inbersiñorik ez dau aurreikusten". Gauzak holan, aurrekontua herritar eta eragilliekin konpartitzen jarraitzeko asmua dakela esan eben eta, horren harira datorren astian billera irekixa egingo dabe.

Gurutz Linazasoro neurologuaren hitzaldi arrakastatsua

Gurutz Linazasoro, Poliklinika Gipuzkoako neurologuak aurreko astian Portalean emon eban hitzaldixak interes handia piztu eban eta entzutera juandakua areto nagusixa bete eben. Poliklinika Gipuzkoako Parkinson Ikerkuntza Zentruko zuzendarixak eskindutako saiuan, bestiak beste, Alzheimerra saihesten laguntzeko burmuniña zelan zaindu bihar dan azaldu eban. Gaixari modu sakonaguan heldu aurretik, beste ezer baiño lehen burmuniña zer dan eta zelan funzionatzen daben esplikatu eban: *“Buru barruan daukagun altxorra da burmuniña, oso organu aldakorra da, estimuluen bittartez prozesatu egitten dau eta aldagai guztietara moldatzen da. Gure burmuniñaren konektibidadiari zor detsagu, hain zuzen be, espezierik garatuen izatia. Segunduoro gure burmuniñan milioi bat konexiño barri sortzen dira. Horregaittik, hitzalditik urtetzian, zuen burmuniñak ez dira izango sartu zariadenian ekarri dituzuen berberak”*.

Neurologoak argi laga nahi izan eban jende gehixenak kontrakua pentsatzen daben arren, *“burmuniñak ez dabela sekula*



galtzen ikasten segitzeko ahalmena. Plastizidadiak egoera bakotxari moldatzen jauteko gaitasuna emoten desku eta, horrekin batera, burmuniñak neurona barrixak sortzeko ahalmena daka. Bi hórreri esker dakagu bizitza osuan, baita zahartzaruan be, ikasten segitzeko ahalmena”. Azaldu-takuaren arabera, *“burmuin osasuntsua izateko errezetarik onena bizimodua osasungarrixa izatia da”*. Horretarako klabiak zeintzuk diran be azaldu zetsan jendiari: aktibidade soziala izatia, estresa murriztia, ariketa fisikua egittia, dieta mediterraneolari segitzia, diabetesa moduko gaixotasu-

nak zaintzia eta, adituak gomendatzen daben moduan, 7 orduz lo egittia. Izan be, lo egittia ezinbestekua da gure burmuniña hoztu, atzera be martxan ipiñi eta gure oroitzapenak egonkortzeko. Horrekin batera, *“burmuniña estimulatzeko jakinmiña izatia, optimista izatia eta txokolatea jatia gure burmuniñaren osasunari eragiten detsen faktoriak dira”*. Nazioarteko erakundiak emondako datuak hartu eta geurera ekarriz gero, Gipuzkoan hiru ordurik behin Alzheimer kasu barriren bat antzematen dabe eta probintzia osuan 15.000 bat lagunek dake gaitza.



“Movimiento Popular” hitzaldixa gaur arratsaldian

Podemos-Ahal Duguk antolatuta, gaur arratsaldian, 19:00etan, “Movimiento Popular” izenburuko hitzaldi-solasaldixa egingo da Portalean. Parte hartuko daben hizlarixak Julen Bollain (Eibarko idazkari nagusixa eta Elkarrekin Podemos-eko legebiltzarkidia), Nagua Alba (Euskadiko idazkari nagusixa eta diputaua Kongresuan) eta Iñigo Errejon (Podemos-eko idazkari politikua eta diputaua Kongresuan) dira.

Kooperaziño proiektuaren barri emoteko saiua udaletxian

Egoazia GKE-ren eskutik “Eibar-Peru. Elkarkidetzaren emaitzak zuzenean” izenburuko hitzaldixa hartuko dau udaletxeko pleno aretuak eguenian, 19:30xetan. Hizlarixa Wilmer Bermejo, CIPCA (Peru) Garpenerako Lankidetzara Erakundeko proiektuen koordinatzailliak emongo dau eta, bestiak beste, gure herritik hangueri laguntzeko urtietan martxan dagan kooperaziñorako proiektuaren barri emongo dau.



Wilmer Bermejo CIPCA erakundeko koordinatzailliak eskinduko dau saiua.

Urteurren bereziak biziko ditu 2017an Eibarko kulturak. Batetik, Portaleak 20 urte bete zituen iaz, baina aurten egingo da ospakizuna gaurtik otsailaren 19ra arte antolatuko den erakusketa bereziarekin. Coliseoak, bere aldetik, 10 urte beteko ditu aurten eta, azkenik, Antzerki Jardunaldiek ere zifra borobila beteko dute, XV. edizioa egingo baitute. Bada, beraz, zer ospatu, baina Jose Luis Gonzalez 'Poxpolo'-k kulturak herrian duen jarduera normala ospatzea aldarrikatzen du.

JOSE LUIS GONZALEZ "POXPOLLO" (UDALEKO KULTURA TEKNIKARIA):

"Herritarrei begira pentsatutako proiektua da Portalea eta funtzionatu du"



- Zertan datza 'Coliseoaren laguna' txartelak?

Laburbilduz, Coliseora edota Udalak antolatzen dituen ekitaldietara joateko ohitura duenari dirua aurrezteko aukera ematen dion txartela da. Publikoa fidelizatzea lortu nahi dugu ekimen honen bitartez eta ikusi dugu beste herri batzuetan ondo funtzionatu duela. Astelehenetik martxan da eta %30eko deskontua izango dute txartela dutenek.

- Zer egin behar da txartela lortzeko?

Pegoran zein eibar.eus webgunean (tramiteak > udal tramiteak > kultura) egin daiteke eskaera eta txartelaren tarifa arrunta 20 eurokoa da. Badaude tarifa bereziak ere (galdetu Pegoran edo kontsultatu interneten). Jaso, bestetik, Pegoran jaso behar da txartela.

- Nola funtzionatuko du?

Sarrerak erosteko orduan bi aukera emango dira: sarrera arrunta edo 'Coliseoaren laguna' txartela dutenen sarrera erostea. Bigarren aukera eginez gero, ekitaldiaren sarreran txartela erakutsi beharko da.

- Pozik zaudete Coliseoak batz besta duen publikoarekin?

Pentsatzen dut bai udalak bai herriko hainbat elkartek antolatzen dituzten ekitaldi askok publiko gehiago behar dutela.

- Portalearen 20 urteak ospatzeko erakusketa antolatu duzue. Nortzuk hartuko dute parte bertan?

Aurretik Portalean bakarkako erakusketak egin dituztenei gonbidapena luzatu eta horietako 53k eman dute baiezkua, tartean hainbat eibartar direlarik. Erakusketa in-

dartsua izango da. Disziplina ezberdinetako artistek hartuko dute parte, toki ezberdinetakoak...

- Horrelako erakusketa baten antolakuntza ez da sinplea izango.

Garraiolariak demaseko lana egin dute! - **Artisten lanek ildo bat jarraitzen dute?** Euren esku utzi dugu artelanen aukeraketa. 20 urte hauetan arteak Eibarren izan duen presentzia, sorkuntza eta eboluzioa ikusi ahal izango da.

- Hasierako helburu guzti horiek bete dituzte Portaleak?

Portaleak sortu zituen zalantzak hasieratik geratu ziren ezerezean. Gogoratzen dut zalantza handi bat zela ea jendeak lfar kaleko aldapa igoko zuen Portalera etortzeko. 800 metro karratu ditu eraikinak, eta pentsatzen dut zalantza horiek uxatu eta

JOSEFA KORTABERRIA UNZUETA

2017ko urtarrilaren 10ean hil zen



"Zure maitasun eta irriparrarekin gelditzen gara. BETI GOGOAN IZANGO ZAITUGU"

ETXEKOEK



ondo funtzionatu duela. Motor nagusia liburategia da, baina musika-eskolak, Udal Euskaltegiak eta Kezkak, besteak beste, jende asko erakartzen dute. Herritarrei begira pentsatutako proiektua da Portalea, bertako errealitateari aurre egiteko, eta funtzionatu duela uste dugu. 2.000 jarduerara jasotzen ditu urtean eta egunero 1.000 pertsona inguru sartzen dira, beraz, okupazioa handia da zentzu horretan.

- Ematen du lfar kaleko aldapa igotzea ez zaiola askori axola.

Bada zalantza handiak genituen! Bai, aldapa eta guzti funtzionatu du Portaleak. Izan ere, zuzeneko kultura eskaintzen da bertan. Kontu birtualak ondo daude eta arlo horretan gu ere egokitzen saiatu gara, baina Portalean zuzeneko harremanak ematen dira, kultura modu fisikoan jasotzen da, eta jendeak oraindik horretara jotzen du.

- Portalea fisikoki eboluzionatzen joan da, gune berriak eskainiz. Helburuak ere aldatzen joan dira?

Erronkak berritzen joan gara eta baliabide gehiago eskuratu ditugu, baina oinarriko helburuak berean jarraitzen du. Adibidez, lehen, zenbait informazio edo kontsulta egin nahi izanez gero, liburategira joan behar zenuen. Orain, aukera gehiago



Portalea zabalduta 20 urte ez dira kasualitatez pasa. **Artxiboa**

“Portalea itxiko bagenu, orduan konturatuko ginatke zenbaterainoko garrantzia duen herriarentzat”

daude eta eskuragarriagoak dira, baina liburategiak bere papera betetzen jarraitzen du eta oso beharrezkoa da.

- Nola kudeatzen da hainbeste jarduera eta arlo dituen gune bat?

Zorionez talde ona dago atzean eta badakigu zerbitzu publikoa eskaintzen dugula. Hori barneratu dugu eta horrela errazagoa da lana gauzatzea.

- Portaleak zer ekarri dio Eibarko kultur bizitzari?

Portalean eskaintzen dena natural hartzen du jendeak, zorionez, oinarriko zerbitzu bezala. Portalea itxiko bagenu, orduan konturatuko ginatke zenbaterainoko garrantzia duen herriarentzat.

- 20 urteen omenezko erakusketaz gain, beste ospakizunik egingo da?

Ez. Erakusketa gela Portaleko ikurra da arteari dagokionean, berezia da, eta horregatik pentsatu genuen erakusketa hau egitea, baina hori bakarrik.

- 2017ko agenda berezia izango da?

Normaltasunez jardungo dugu aurten ere: erakusketak, hitzaldiak, ikastaroak... Normaltasun hori ere ospatzekoa da, bartzuetan ez gara daukagunaz jabetzen.

"Zure adorea eta umiltasuna ikasketa bat izan da guretzat. Eta zure irribarrea, gure motorra. **Eskerrik asko, Ines**"

ZURE ONDOAN BIDEA EGIN DUGUN EMAKUME GUZTIEN PARTEZ

Anuk Estudioko diseinatzaile grafiko eta ilustratzailea da Silvia Tubia (Eibar, 1975), eta Bordelen eman ditu egun batzuk Euskadi/Akitaniako gazte sortzaileentzako "Euroeskualdeko Sorkuntzarako Mugikortasun" egitasmoan. Euskal Herriko zein hemendik kanpoko beste sortzaileak ezagutzeko asmoarekin erabaki zuen Silviak Eusko Jaurlaritzako "Aquitaine-Euskadi 2016" proiektuen artean dagoen ekimen honetan parte hartzea.

SILVIA TUBIA (DISEINATZAILE GRAFIKOA):

"Sortzaileentzat ezinbestekoa da kolaborazio-sareak sortzea"

- Beste sortzaileen lanak ezagutzeko Bordelen egon zara egunotan. Nolako izan da orain arte egin duzun ibilbidea?

Diseinu grafiko ikasi nuen Bilbon. Gero enpresa baten webguneak diseinatzeko jardun nuen. Bilbo eta Madril artean lanean ibili nintzen, orain dela urte t'erdia nire enpresa sortzea erabaki nuen arte. Nire lanean gehienbat marken komunikazioa, diseinua eta berrikuntza digitala lantzen ditut. Bakarrik lan egiten dugun *freelance* edo autonomoentzat oso ondo daude horrelako programak, beste sortzaile batzuk ezagutu eta harremanak egiteko aukera ematen ditugutelako.

- Ondo aprobetxatu duzue elkartrukea? Zelako gauzak ikusi dituzue?

Bordeleko *Fabrique Pola*-k hainbat proiektu artistiko eta kultural ditu (sorkuntza kontenporaneoaz eta produkzio eta difusio artistikoaz arduratzen den elkarte bat da), eta han bisita pila bat egin ditugu, egiten duten lana bertatik bertara ikusteko. Agenda bete-betean

izan dugu. *Fabrique Pola*-koek sinergia antzeko bat sortzen dute, hau da, artisten artean kolaborazio-sare bat lortzen saiatzen dira. Tailerrak ere egiten dituzte, eta sortzaileei laguntza individual zein kolektiboa eskaintzen diete. Lehendabizi Akitaniako sortzaileak egon ziren Euskal Herrian, Getxon, eta orain Euskal Herrikoak joan gara bertara. Proiektuak elkartrukatzen ditugu, elkar ezagutu dugu eta kolaborazio-sarea nola sortzen den ikusi dugu. Bisita oso positiboa izan da. 3 egunetan Euskal Herriko joandako 4 enpresen artean ere harremanak finkatzen hasteko oso baliagarria izan da.

- Nola sortu zitzaizun programa honetan parte hartzeko aukera?

Programa hau *Fabrique Pola*, *Bitamine Faktoria* eta *Garapen Agentzien Euskal Elkarteak* sortu dute, eta nik *Debegesaren* birtartez izan nuen guzti horren berri (eskerrak eman nahi dizkiet *Debegesako Maider Gogorza*, *Cristina Zumeta* eta *Ernesto Igartuari*). Bidaia hau egiteko aukera zegoela jakin

nuenean *Anuk* estudioan egindako proiektuak bidali nituen, eta 11 enpresetatik 4 aukeratu zituzten, nirea barne.

- Nolako da zuk egiten duzun lana?

Komunikazioa eta kreatibitatea lantzen ditut. Enpresetan arlo horiek potentziatzeko lana egiten dut, enpresa horien emaitzak hobetzeko eta, azken finean, bezero gehiago erakartzeko eta estankatuta ez geratzeko. Horretarako irudi korporatiboa, mailing-a, webguneak... eta beste hainbat gauza lantzen ditut. Edozein sektore edo alorretan jarduten dut, ez daukat inolako filtrorik.

- Komunikazioaz gain, ilustrazioa ere lantzen duzu, ezta?

Ilustrazioekin firma bat daukat eta linea horrekin motxilak, tazak, agendak, aterkinak eta horrelako gauzak atera ditut. *Zorionak* ludotekan, *Izane* dekorazio dendan eta *Farmalurren* daude salgai. Ilustrazioei buruzko azoka bat egongo da laster Madrilan, eta hara ere gauza gehiago ikasteko asmoarekin joango naiz.




Silvia Tubia diseinatzaile eta ilustratzailea, berak diseinatutako tazarekin.



ALEJANDRO ARAMBURU IRASTORZA

(Maria Solozabalen alarguna)



"Ez zaitugu inoiz ahaztuko, aita, perretxikoz beteta dagoen zeruan zaudela" —ETXEKOAK—

HILETA-ELIZKIZUNA GAUR (URTARRILAK 20) IZANGO DA, SAN ANDRES ELIZAN, ARRATSALDEKO 19:00ETAN HASITA.



mila berba
mila argazki
mila lagun
mila barre
mila elkarrizketa
mila negar
mila iritzi
mila zorion
mila berri
mila esker

1.000
...eta kitto!

28 urte egin berri ditut 2016 amaitzearekin batera. Hau da, XX. mendean jaio nintzen. Dagoeneko, dena dela, urte gehiago egin ditut XXI.ean. Askok ez duzue jakingo, baina aitzindaria izan nintzen. Ez zegoen nire modukorik sasoi hartan. Arrasate Press kaleratu zen egun batzuk lehenago eta bigarrena izan nintzen herri-aldizkarien artean. Askotan esan didate izen berezia dudala, eta horrela da. Urte batzuk lehenago, Mikel Larrañaga alkate zela, kaleratutako bando ospetsu baten gerizpean jaio nintzelako. Izenak amaierako ikutua badu ere, nire heldutasunean sartuta gero eta sendoago sentitzen naiz, batez ere astero –gehiago esango nuke, egunero– zuek, gure irakurle fidelok, eskaintzen didazuen harreragatik. Zertan jardungo nuen ba nik zuen berririk ez banu? Zuek zarete benetako protagonistak; nik bitartekari lana ahal den hobekien egitearekin nahikoa dut. Horretan ez dut amore emateko asmorik. Hurrengo milakoei heltzeko prest naukazue. Eskerrik asko bide hori hain gozoa egiteagatik!



Paulino Larrañaga artistari egin zitzaion lehenengo elkarrizketa ...eta kitto!-n.

Ez da makalekoa 28 urte betetzea

Kioskoetan hasi zuen ibilbidea ...eta kitto!-k 1988ko abenduan, Udaleko Euskara Zerbitzutik sortu zenean. Eta, euskera gerturatzearen, handik hiru urtera zure buzoiraino jo zuen. Kaleko inkesta baten Amañako katekista bategen *"euskeraz Biblia eta ...eta kitto!, besterik ez dot irakortzen"* esan zigunean helburu batzuk lortze bidean geundela erakutsi zigun. Hasierako sasoi haiek zailagoak ziren, batez ere ezagueraren arloan, kontzientziatioak bere tokia hartzen ziharduen bitartean. *Argia* astekariak betetzen zuen esparruaz aparte, ezer gutxi zegoen komunikabideetan: 1986an sortu zuten *Deiak* eta *Egin*-ek bide motza egin zuten *Eguna* eta *Hemen* euskerazko astegunkariak. *Euskaldunon Egunkariak*, bestalde, ...eta kitto! sortu eta handik bi urtera, 1990eko abenduan ikusiko zuen lehen argia. Aurrekoa gutxi balitz, Udalean ere Euskara Saila sortu berria zen. Fernando Muniozgueren postu horretaz jabetu eta berak piztu zuen esku artean duzuen produktuaren metxa. Seigarren Korrika pasatuko zen urte hartan gure herritik eta Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburua salduena izatea lortu zuen. Juan San Martin herriko seme kutuna Ararteko izendatuko zuten. ...eta kitto!-ren aurrekontua milioi eta erdi pezetakoa zen.

Orduko Eibar

1988ko urte hartan hasi ziren Gabonetako argiak kaleetan ipintzen, komertzianteeak eta dendariak hala eskatuta. Horrekin batera, ordura arteko Untzagako plaza erdian jartzen zen pinua mendian lasai lagatzen hasi ginen. Orduan ere bazen krisirik, eta Frantziako produktuen aurkako boikota auto-kontzesionarioetan hasi zen igartzen. Txikitoak igoera potentia izan zuen: 15 pezetatik 20ra. Drogaren arazoa ez zen nolana hiko, gazte asko azpian hartuta. Bista Alegren zegoen AYA tailerrean 110 neska mutilentzat hiru urtetako eskola-tailerria prestatu zuten, ofizioa behin ikasita eraikina berreskuratu eta kultur-etea bihurtzeko: gaur egungo Porta-

lea. Bariantearekin hasi ziren, lehenengo zatiaren hasierako pausoeekin. Perurena harrijasotzaileak hitzaldia eman zuen, eta baita Clemente entrenatzaileak ere. Zeinek bildu zuen jende gehiago ez dizuegu esango. Retegik partiduko 100.000 pezeta kobratzen zuenean, 48 jaialdi izan ziren Astelenan, oingoaren bikoitza. Zuhaitzei begira, urkiak, ezkiak eta astigarrrak ziren kalean nagusi; hori bai, begiak jaitsi orduko, txakur-kakek sortzen zituzten buruhaustekak, lehenengo ordenantza kaleratzera derrigor-tzeraino (zelan gabiltza 28 urte geroago?). Soldadutza indarrean zegoen oraindik eta, intsumisioari aurrea hartuta, objektioa ipini zen modan, gazteak zerbitzu zibila bete beharrean jarrita. Basarritarrei esnea zuzenean saltzea debekatu zieten eta, zine areto mordoa izatetik, bakarrarekin geratu ginen sasoi hartan, Untzaga zinearekin. Herriko parke mobila 10.500 gurgildunek osatzen zuten: eurretatik 9.500 auto, 660 kamioi, 300 moto eta 50 autobus. Urte hartako udal aurrekontua 1.856 milioi pezetakoa izan zen. Emakume bakoitzak haur bat ekartzen zuen mundura: jaiotza tasa gaur egungoa baino zeozer altuagoa zen. Eta *Bombonera* foball zaletuen taldeak 3.000 eibartar donostiaratu zituen, Gipuzkoako hiriburua okupatzeraino. Bidaietarako, eibartarrok Kuba eta Dominikar Errepublikari hasi ginen eskatzen destintotzat.

Aixola urtegia larri zegoen -zeinek esan, orain ikusita- eta ura mozteko asmoa jakinarazi zuten agintariak. Telefono zenbakiak aldatzeko ordua heldu zitzaigun (71tik hasten zirenak 11tik hasiko ziren ordutik aurrera eta 70etik 10era pasatuko ziren besteak), 200 etxebizitza egin ziren urte hartan eta beste mila falta zirela uste zen. Eibarrek 34.355 biztanle zituen, aurreko urtian baino 511 gutxiago, eta urte hartan 181 jaiotza izan ziren eta 296 heriotza. Altamiran hilerria egitearena ere ahoz-ahoz zebilen orduko hartan eta Eibar Euskal Herri osoko herri garatuenen artean zegoen, seigarren tokian hain zuzen ere.

14.000 lagunek irakurtzen dute astero aldizkaria
Aztiker enpresak egin zuen inkestaren arabera

Pausuz pausu: 1988-2017

- 1988ko abenduan jaio zen ...eta kitto! hilabetekaria, egunkari formatoarekin. Argitaratzailea Udaleko Euskara Zerbitzua zen. Domeketan banatzen zen kioskoetan, egunkariekin.
- 21. aletik aurrera buzoietan banatzen hasi zen. 31 ale egin zituen hilabetekari moduan. 5.000 aleko tirada zuen.
- 5. alean Candido Eguren buruz egindako artuikuluarengatik Rikardo Arregi saria irabazi zuen ...eta kitto!-k.
- 1992ko maiatzaren 28an kaleratu zen hamabostekariaren lehen alea (32. alea zena). Argitaratzailea urte horretan sortutako ...eta kitto! Euskara Elkarte izan zen (eta da gaur).
- A4 formatoria pasa zen eta tirada 6.000 alera igo zen. Pedro Zelaia, Imanol Laspiur eta Josu Arkotxa kolaborazioak egiten hasi ziren.
- Hamabostekari moduan 39 ale kaleratu zituen ...eta kitto!-k Markeskua jauregian zuen egoitzatik.
- 1993ko ekainaren 6an ikusi zuen argia hauteskundeetako lehen ale bereziak. Orduz geroztik hauteskunde guztien jarraipena egin du.
- 1994ko maiatzaren 13an kaleratu zen lehen alea astekari moduan (71. alea) eta azala koloretan kaleratu zen lehen aldiz.
- Sasoi hartan hainbat kolaborazio egin zituen Eibar eta inguruko irratiekin, irratsaio asko eskainiz Onda Cero, Radio Eibar, Arrate Irratia eta Herri Irratiarekin.
- 1995eko otsailan, 100. alea argitaratzen zuela-eta, hainbat ospakizun egin ziren, mahainguruak tarteko.
- 1995. urteko azken egunean gaur egun ohitura bihurtu den Eibarko Kirok Sarien lehenengo edizioa egin zen.
- 1996ko ekainean, astekariak urte bi betetzen zituela-eta, "Milla bateko herri-krosa" egin zen klubetako arteko olinpiadak aprobeztatzuz.
- 1996ko urrian Txikitto! umeentzako hilabetekariaren lehen alea kaleratu zen. Eskoletan irakurzaletasuna bultzatzeko asmoarekin egin zen.
- 1999ko abenduan diasporan dauden eibartarrak gogoan hartu zituen astekariak, hainbat elkarrizketekin.
- 2004ko ekainean sanjuanei buruzko Bixamona argazki-albuma kaleratu zen lehen aldiz. Urrian Lapikotxiki atal berria sortu zen.
- 2004ko uztailean Merkatu plaza laga eta gaur egungo egoitzera pasatu zen ...eta kitto! (Urkizu, 11).
- 2008ko abenduaren 12an, 660 alearekin, astekaria koloretan kaleratzen hasi zen.
- Publikazioak urtetik urtera gora egin du eta gaur egun gutxienez 28/32 orrialdeko aleak kaleratzen ditu ...eta kitto!-k eta hortik gorako orri kopuruekin edozein gehigarri dela-eta.
- Tiradak ere gora egin du etengabe eta orain 8.100/8.150 aldizkari inprimatzen dira astero.



Zubi-Gain URKIZUKO DORREETAN



Urkizu, 11-behea Tfnoa. 943-254060

Ogitarteko, plater konbinatu, tapa, entsalada, pintxo bereziak...

ETXERAKO ZERBITZU BERRIA:
bapobapo.com

2016-2017
IKASTURTEA
**MATRIKULA
ZABALIK**

Urtarrilaren
9tik aurrera

**Eibarko Udal
Euskaltegia**

- Orduetegi eta erritmo malguak
- Tarifa bereziak
- %20, %50 eta %75eko deskontua

PORTALEA - Bista Eder, 10
943 70 09 12 euskaltegia@eibar.eus



Sorrerako urtiak gogoan

Eibarko udaleko Euskera Batzordiarene bittartez ikusi eban argixa ...eta kitto! aldizkarixaren lehen zenbakixak, 1988ko abenduan. Pixka bat aurretik, Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuan biharrian hasitta eguan Fernando Muniozguerenek ordurako bazekan Euskal Herrixan indar haundixarekin hasitta eguan euskerazko herri aldizkarixen fenomenuaren barri eta, berezkua zekan senari jarraituta, argi ikusi eban lehelengotikan Eibarren be horrelakua sortzeko premiñia. Asmo hori buruan, orduan alkatesia zan Aurora Baskaranekin berba egin eta, berandu baiño lehen, aldizkarixa sortu ahal izateko biharriari ekin zetsan.

Edozelako aldizkarixa hutsetik sortziak, baiña, bihar haundixa eskatzen dau eta, horregaittik, laguntasun billa oso gertu, udalaxian egunero aldamenian zittuan Begoña Bilbatua eta Begoña Azpirirengana jo eban zuzenian.

Fernandok aldizkarixa errealdade billakatzeko gaztiak proiektura erakartzia ezinbestekua zala be pentsatzen eban eta, horregaittik, batian eta bestian galdetzen hasi zan kazetaritza ikasten ziharduenen, diseñuan zein fotografixan ondo moldatzen ziranen izenekin zerrendia osatzeko eta, jarraixan, banan-banan bere asmuaren barri emon eta proiektura erakartzeko. Eta hollan lortu eban lehen lantaldia osatzia.

Tabloide itxuria zekan lehen ale hori etartzeko gogotik jardun eban biharrian. Hutsetik abiatuta, aldizkarixandako izenik be ez zekan eta, jakiña, derrigorrez bat asmatu biharra eguan. Soluziñua 1982xan Eibarko alkatia zan Mikel Larrañagak egindako

banduan topau eban: euskeriarene aldeko banduak zeresan haundixa emon eban eta ordurako Euskal Herri osuan ezagutzen zan. Eta aldizkarixandako izena zuzenian bandotik hartzia erabagi eban, amaierako "...eta kitto!" berbak aldizkarixandako izen bihurtuta. Begoña Azpirik oso ondo gogoratzen dau lehen ale hori kaleratzeko zelan ibilli ziran: *"Goguan dakat lehen ale hori abenduan etara genduala eta, ixa batera, Unibersidade Laboralian demaseko jardunaldixak egin zirala Finlandiatik, Laponiatik... etorritako jende morduarekin. Zortzeko moduko egunak izan ziran, 24 ordukuak ez, 28 orduko jardunak izan ziran!"*.

Hillebetekari moduan jaixotako publikaziñua ez eze, beste guztia be modu "artesanalian" egitten zala be ondo gogoratzen dau: *"Banaketia egitteko Fernandok orri batian ekarri zeskuzen Eibarko pelukerixa guztien izenak, medikuen konsultak, soziedadixak.... Herriko denda guztietan, mer-*



Fernandok aldamenian zittuan Begoña bixengana jo eban aldizkarixan lehen aliak kaleratzeko laguntasun billa (ezkerreko argazixan, Begoña Bilbatua).

Azpixan alkatiaren abiapuntua izan zan soziolinguistika ikastaroko irudixa. Fernando Muniozguerenen aldamenian, urtietan alkatetako idazkarixa izandako Jasone Bilbao.



www.aek.eus

**ORAIN DUZU
AUKERA!**

aek

eibar@aec.eus

matrikula zabalik

Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379

San Andres
Gozotegia

● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

katu plazan... aldizkarixa toki guztietan banatu bihar zan eta beste Begoñarekin batera, bixak arduratzen giñan horrekin". Kontuan izan bihar da datu-baserik, zerrendarik edo antzerako ezer ez zala existitzen, hutsetik hasi bihar izan ziran, buruz, telefono listiña hartu eta agertzen ziran datuekin listak osatzen, ahal zan moduan bateri edo bestiarri galdetuta datuak aktualizatzen... Begoña bixak alkarrekin ibiltzen ziran, ahal zebeñ moduan pegatinak banan banan ipintzen. Makaleko biharra, jaixo barrixa izan arren aldizkarixak 6.000 aleko tiradia zekan eta, nahiz eta hasieran ez zan etxietara eruatzen, ahalik eta jende gehixenak irakortzia zan asmua eta, hori lortzeko herri osuan banatzen ibiltzen ziran, jende asko atzera aurrera mugitzen zan tokixetan arreta berezixa ipiñitta.

Eta, martxa horretan kaleratu eta editatu zittuan udalak ...eta kitto!-ren lehelengo 31 zenbakixak, 1988tik 1991era bittartian. Oin dala gitxi, Ego Ibarra batzordiak ale hórrek digitalizatu eta bere webgunian zintzilikatu dittu, nahi dabenak eskuratzeko aukeria izan deixan. Hortik aurrera kaleratutako guztiak aldizkarixak zekan izen bereko euskera alkartiak emon dittu argittara eta, kanbixuarekin batera, aro barrixa zabaldu zan.

Udaletik euskera elkartera saltua

Jasone Bilbaok ondo baiño hobeto gogoratzen dau zelakua izan zan aldaketia, euskera alkartiaren sorreria bete-betian bizitzia tokau jakon eta. Diñuanez, "udaletxetik elkartera pasatzia oso errez, natural egin zan". 1991ko otsaillian emon zittuan lehelengo pausuak ...eta kitto! Euskara Elkartiak. Abiapuntua Udaleko Euskara saillak antolatutako soziolinguistika ikastarua izan zan: "Soziolinguistika ikastarua oso potentia izan zan, otsailetik ekaiñera bittartekua, eta hor emon zeskuen euskera alkartiaren sorreraren barri. Ikastarua amaittuta, parte hartzen ibilittako batzuk Arrate Kultur Elkartean biltzen



Euskera alkartiaren sorreran talde eragillia osatu ebenen argazkixa. Beheko irudixan, ezkerrian, Begoña Azpiri Markeskuan egindako billera batian.

hasi giñan, eta 1991ko uda partian alkartia zelan sortu leikian pentsatziari ekin jakon".

Orduan sasoiaren egindako billerekin akordatziarekin batera, Arrate Kultur Elkartearen aldeko jarrerria azpimarratu nahi izan eban: "Alkartia sortzeko mekanismuak aktibatzen hasi giñala, Arrate Kultur Elkartiak oso eskuzabal jokatu ebala esan biharra dago, euskera alkartia bere barruan, azpibatzorde moduan sortu ahal izateko bere estatutuak kanbixatzeko prest azaldu zan eta". Edozelan be, azkenian alkartia modu independientian, hortik kanpora sortzia egokixagua zala pentsau eben eta holan egittia erabagi zan.

Sorreratik hasitta urte morduan ...eta kitto! Euskara Elkarteko idazkarixa izan zanak kontautakuaren arabera, "Sarasuatarren soziedadian izan zan lehen agerraldixa, ordura arteko ibilbidia azaltzeko. Hori amaittuta, handik zuzenian juan giñan Untzagaraiño, udaletxe pareko erretratu hura etaratzera. Kolore eta ideologia guztiak batzia lortu zan, jende gazte asko...".

Jasone bera Astixa-ren bidez aillegau zan ...eta kitto!-ra, orduan sasoiaren monitorea modura biharrian ziharduan eta. Baiña Hizkuntzaren Pedagogia ikasittakua zala eta, arlo horrek interes haundixagua zekan be-



randako eta holan hasi zan Eibarren euskeriaren normalizaziñua lortzeko biharrian, horren aldeko proiektuak asmatzen eta aurrera etaratzten. Horretako asko eta asko (gehixenak) gaur egunian be martxan segitzen dabe.

Euskera alkartiak kaleratu eban hillebete-karixaren 32. alia, geruago hamabostekari bihurtu eban aldizkarixa, hurrengo pausua astekari billakatzia izan zan... Aldizkarixak gaur egunian dakan indar eta prestigioaren zati haundi bat euskera elkartiak 90. hamarkadan egin eban bihar haundixari zor detsala pentsatzen dabe bixak: "Orduan euskeriaren egoeria penagarrixa zan Eibarren eta, horrerri bueltia emoteko, gogotik jardun bihar izan genduan biharrian".

www.kolorlan.com

667 54 89 16 (Ritxar)



KOLORLAN
P I N T U R A K

LEGALBIDE
Finka administratzailea ■ Abokatua
Telf.: 608 30 85 26
e-mail: legalbide@gmail.com
Iker Elorza Beitia

Urte askoan, ...eta kitto!

"Urtarrilaren 20an 1.000. alea kaleratuko du ...eta kitto!-k. Idatziko duzu zerbait?", galdetu dit telefonoaren beste aldetik lagunak, eta halako erantzukizun bat sentitu dut ondo egiteko, handia delako ... eta kittok urte guzti hauetan bete duen funtzio soziala eta herri honi, eta euskararen biziberritzeari, egin dion ekarpena. Asko da esan nahiko nukeena, asko direlako 1.000 ale; asko 28 urte. Oroitzapenak trumilka datozkit, errenkadan izen-abizendunak. Akordatu naiz kazetaritzan trebatzeko aukera eskaini zidaten lagunekin, bazkide militante zein profesionalekin, euskararen alde euren alea jartzen duten iragarleekin, horrenbeste urtean proiektua bizirik eusteko eginalak egin dituzten hainbatekin, eta, zelan ez, astero-astero aldizkaria etxean jasotzen duten harpidedunekin eta irakurleekin. Baina denen artetik, bat nabarmendu nahiko nuke gaur: Eustaki Kaltzakorta, aspaldi aldizkarian nire testurik irakurri ez duela esanez aldiro-aldiro kallean gelditzen nauen irakurle fina.

Bai, Eustaki. Zeuri entzuna da euskaraz irakurtzen duzun gauza bakarra dela ...eta kitto!, eta euskaraz alfabetatuta egon ez arren, lehenengo berbatik azkenekora irakurtzen duzula. Zeuk esana da Eibarko berri izateko modurik behinena izan dela zuretzat beti ... eta kitto!, asko ikasi duzula aldizkari honi esker, eta zure inguru hurbilean makina bat laguni zabaldu diela euskarazko mundurako atea. Zenbat bider esan didazun nekez egongo dela debaldoko gauzarik horrenbeste entretenitu zaituenik, horrenbeste gogobete zaituenik. Eta ez dakizu ondo zenbat estimatzen ditudan zure berbak. Izan ere, euskarazko kazetaritzan, eta bide batez, tokian tokiko euskarazko komunikabideetan dihardutenen lanaren aitortza dira zure hitzak. Beti pentsatu izan dut euskararen aldeko baliabideak antolatzerakoan, arlo honi

lehentasuna eman beharko lioketela eta inork baino hobeto barneratuta daukazula zuk hori. Ez. Ez da makala ...eta kittok, eta bidenabar, gainerako herri komunikabideek, egindako lana: euskara sekula sartu bako txokoetara eraman dute, euskarara gerturatzeko ahalegina egin dutenen makulu izan dira, informazio gaindosiak jotako mundu globalizatu honetan euskaraz eskaini dute herriko berri, arnasa eta hauspoa eman diete euskalkiei, herrigintzan diharduten eragileen lana ikusgarri egin dute, herriko publizitateari lekua egin diote eta herritarren arteko distantziak txikituz, herriko proiektu erreferente eta komunikatiboa bihurtu dira.

Lan ona egin da, baina ez da nahikoa. Datorren ugaritasunean herri gisa iraungo badugu, gutaz eta gure hizkuntzan jardungo duten hedabide kalitatezkoak behar ditugu, nekez topatuko dugulako gure hizkuntza-komunitatea indartzeko bitarteko eraginkorragorik. Jarraitu behar dugu beraz hobetzen, hazten, sortzen, egiten eta eragiten, Eibar euskaldunago egiteko gaude-lako, eta horretarako, euskaraz informatzea bakarrik ez delako nahikoa. Erabili ditzagun gure bitartekoak euskararekiko motibazioa lantzeko, egin dezagun ahalegin handiagoo euskararen kontra egon ez arren gaur oraindik gerturatu ez zaizkigun horiengana iristeko. Eta egin dezagun hori dena elkarlanean, elkarren beharra dugulako euskaldunok. Eta lan militantea ez dadin izan euskararen sustengu nagusia, eska dezagun hizkuntza-politika ausarta, eska ditzagun baliabideak estrategikoa dela baloratzen dugun honetarako, eta egin dezagun denok dakigun hori dakigun ondoen. Zorionak, ...eta kitto!, eta urte askotarako.

Beti pentsatu izan dut euskararen aldeko baliabideak antolatzerakoan, arlo honi lehentasuna eman beharko lioketela, **azken batean komunikabideak direlako euskaraz sozializatu ez direnentzat euskal mundura sartzeko bidea, eta beti uste izan dut inork baino hobeto barneratuta daukazula zuk hori.**



**Ainara
Argoitia**

...eta kitto!

Euskara Elkarteko
presidentea

eta BARREneko kazetaria

astixä

Zezenbide 7, Eibar 20600 Gipuzkoa tlf.94320623 |

EIBAR
Hipermerkatua

Laguntzarekin colabora



zurekin



IK4  **TEKNIKER**
Research Alliance

**SOLUZIO
TEKNOLOGIKOAK**

SISTEMA MEKATRONIKOAK

MANTENTZE INDUSTRIALA

AUTOMATIZAZIO ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA

IKUSKAPENA ETA NEURKETA

GAINAZAL MULTIFUNTZIONALAK

GAILU SENTSOREAK

BERRIKUNTZA ETA ADIMEN LEHIAKORRA



3 URTEKO
MANTENTZEA,
BERMEA ETA
LAGUNTZA







NISSAN X-TRAIL
23.600 €* TIK AURRERA

7 ESERLEKUREKIN ETA SABAI
PANORAMIKOAREKIN

YOU+NISSAN

GURE KONPROMISOA ZURE ESPERIENTZIA.

-  Kortesiazo ibilgailua doan
-  Zerbitzuko prezioak berdinduta
-  Nissan Assistance bizi osorako
-  Ibilgailuen azterketa doan

Ezagutu zehaztasunez Bezeroen Promesa Cliente programa hemen nuncaconducirassolo.es edo kontzesionarioen gure sare ofizialean.

GAURSA

Otaola, 22 - 20600 Eibar - Gipuzkoa - Tel. 943 820 974

Kontsumo mistoa: 6.2 l/100 km. CO₂ isurpenak: 145 g/km.

*PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan, barne dauzka FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua, BEZ eta ZGZB, Espainiar merkaturako, nahiz eta azken hori agian ez den aplikagarria zure Autonomia Erkidegoan. 3 urteko mantentze-kontratua (kilometro kopuruaren mugarekin). Sartutako berrikusketak Bermeen Liburuaren eta Mantentze Ziurtagiriaren arabera estandarrak dira. Salbuesita daude Flotak eta enpresak. Eskaintza balioduna eskuzko Nissan X-Trail Acenta DIG-T 163CV (120 kW) EURO 6 berri bat eskuratzen duten partikular eta autonomoentzat, baldin eta erosiaren izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat ematen badute eta Espainian Sukurtsala duen Magic Plan de RCI Banque SAREN bidez finantzatzen badute. Gutxieneko egonaldia 24 hilabete, finantzatzeko gutxieneko zenbatekoa 6.000€. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 2017/01/31 arte da balioduna. Informazio gehiago jasotzeko jo zure gertueneko kontzesionarioara. Baliteke bistaratutako irudia ez etortzea bat eskaintako ibilgailuarekin.

kazetariekin berbetan



Lierni Ibagutxi

Lehenengo kontakua Fernando Muniozgurenen eskutik izan nuen. Idaztea gustatzen zitzaidala jakin zuen eta hark eskatu zidan lehen kolaborazioa. Institutuko azkeneko urtean izan zen. Narrazio txikiren bat eta iritzi artikulua bat-edo izan ziren nire lehen lanak. Handik gutxira aldizkarian kazetari-lanak egiten hasi nintzen.



Batez ere elkarrizketak egin nituela esango nuke, baina baita bestelako edukiak ere. Sasoi batean *Vanakishan Vanakishalaren* horoskopoa idatzi nuen. Gazteentzako edukiak ere. Irratia probatzeko aukera ere izan genuen... Orohar, mundu "errealarekin" lehen kontakua izateko aukera aparta izan zen ...eta kitto!n igarotako denbora.

Lan-giroa oso ona zen. Orduan unibertsitateko klaseak arratsaldean izaten genituen eta goizetan, ia goizero esango nuke, ...eta kitto!-ra joaten nintzen, Markeskuara. Aldizkariak gain, elkarteko beste talde batzuetan ere ibili nintzen: literatur taldean, esaterako, aldizkarian genbiltzan erredaktore batzuk eta beste lagun batzuk elkartu ginen... Gure bizi-zako parte handi bat ...eta kitto!-ren ingurukoa zen...

Lanbide honetan hasi nahi duen edozein gazterentzat aukera ezin hobea da. Benetako aldizkari bat aurrera ateratzeko prozesua bertatik bertara ezagutzeko eta bertan parte hartu eta erantzukizuna izateko aukera

izan nuen, taldeko lana egiteko, baita irratia ezagutzeko ere... Gauzak ondo irtetzen direnean eta gauzak oker doazenean nola aurre egin, zer tentsio bizitzen den, pozak, izerdia... Hori guztia hogei urte bete baino lehen bizitzea eskola aparta da. Ikasketetatik aparteko erantzukizunak zer diren ikasten duzu. Nik Unibertsitatea ilusioarekin hasi nuen, baina lehen egunetik desengainua izan nuen, klaseak oso masifikatuak zeudelako, irakasle kaleratuen auzia, ikasgai teorikoegiak... Komunikatzeko ofizioarekin benetako kontakua ...eta kitto!-n izan nuen.



Amaia Muruamendiaraz


Leioan ikasketak egiten negoela, nere lagun batzuk, Idoia Irazola, Ana Aizpurua, Mireia Ugarteburu, Idoia Arrillaga, José Valderrey... bazeuden ..eta kitto!-n lanean. Eurengaitik sartu nintzen ni. Ondo gogoratzen dut, Fernando Muniozguren, ...eta kitto!ko motarra, eta bi Begoñak: Begoña Bilbatua eta Begoña Aizpiri. Udaletxeko Euskara Zerbitzuetako bulegoetatik egiten zen dena. Aldizkariaren izena ere Mikel Larrañagak ateratako bando famatuan ipintzen zuten bezala, *euskaraz ...eta kitto!* Izena ezin asmatu eta bandoa parian eukita (horman) horrela gertatu zen. *Arrasate Press* eredutzat hartu zuela argi daukat.



Hasieran tabloide formatoko lau orrialde ziren eta Eibarko kioskoetan banatzen zitzaizkien aleak bezeroei. Urteak joan eta urteak etorri danetik egin nuen, aldizkaria banatu etxeetan, argazkiak atera, errebelatu, kaleko elkarrizketak, Oier Narbaizakin Onda Cero irradian elkarrizketak egin, Elkartearen ekintzetan parte hartu...

Gaur egun ez dut kazetari bezala lan egiten, enpresa familiarra daukagu, eta horretan dihardugu.

Aldizkariaren geroari dagokionez, ez nuke nahi kompetenziari begira egoitea eta artikulua eta elkarrizketa sakonagoak nahi nituzke, bestela agendaren itxura hartzen duela uste dot, zer gertatu den eta zer gertatuko den.



MAPFRE
ASEGURAK

LOURDES URZURIAGA
987 ZENBAKIDUN DELEGATUA

AUTO eta ETXEBIZITZA ASEGURAK
JUBILAZIO PLANAK
INBERTSIO FONDOAK
ENPRESA ASEGURAK
OSASUN ASEGURAK
BIZITZA ASEGURAK

Sostoa, 1 - behea (EIBAR) lurzuri@mapfre.com

☎ 943 820 449 Faxa: 943 820 609 Mobila: 607 401 929

EL TIO PALANCAS
GALDETU KONPROMISORIK GABE

*Gozo-mahaiak
prestatzen
ditugu*

*ezkontza
jaunartze
urtebetetze
etabar*

JUAN GISASOLA, 8 **665 70 20 82**



Institutuan nengoela hasi nintzen, hilero liburu baten kritika egin behar nuen. Fernando Muniozguerenek deituta hasi ginen gehienok, ezeri ezetz esaten genion gazte taldea zebilen ...eta kitto!-ren inguruan, baina motorra Euskara saileko Fernando Muniozgueren eta Begoña Bilbatua eta Begoña Azpiri ziren.

Fernandoren "sinergia sortu behar dugu" esaldiak orduan ez zidan ezer esaten, orain gutxi ulertu nuen ordea zer esan nahi zuen. Euskaraz bizi nahi badugu, sinergiak sortu behar ditugu: erakarpen-indarrak, bata bestearekin. Mugimendu aktibo batek ez-aktibo horiek erakarri egin behar ditu, eta aktibo bihurtu. Baina horretarako militantzia aktiboa behar da. Euskaraz bizi nahi badugu, ahalegin aktiboa egin behar dugu. Bestela, aire-poltsa hutsa izango da, itxurakeria hutsa, ez besterik.

Batzuetan pentsatzen dut kazetaritza ikasten hasi nintzela ...eta kitto!-ren inertziaz. Sartua nengoen saltsan eta kazetaritza ikasteko esaten zidaten batetik eta bestetik, eta hala egin nuen. Ez naiz sekula damutu.

Bizitzak eraman nau batetik bestera, ia oharkabean, erabakiak hartzen ditudanaren sentsazioa izan arren, uste dut erabakirik potoloenak bizitzak berak bideratu dituela. *Egunkaria* itxi zutenean irakaskuntzan hasi nintzen. Horretaz ere ez naiz damutu, asko gustatzen zait nire lana, kazetaritza beste. Kazetaritza ez da ofizio bat, kazetari ona izateko, kazetaritza bizimodu bihurtu beharra dago, eta hori zaila da: hori ere erabaki aktibo bat dela esango nuke.

Egunkaria oso eskola ona izan zen niretzat. Uste dut bertan sartzeko baliatu izan nuela ...eta kitto!-k eman zidan esperientzia. Gero, bizi-eskola bat izan zen *Egunkaria* niretzat: mundua ikusteko eta munduari begiratzeko modu bat sortu zuen nigan.

Bizi dugun garai berri honetan, Euskara elkar-teek, oro har, ardura berezia dutela uste dut.

Une kritikoa bizi duela euskalgintzak eta euskal munduak esango nuke. Euskararen Legea sortu zenetik hona urratsak egin dira, ez dago dudarik, baina muga batean gaudela uste dut. Ezagutza zabaldu da, erabilera ez. Eibarren azken 20 urteetan erabilerak 0 egin du gora, Udalak egindako azken inkesten arabera.

Lasaitu egin gara, eta uste dugu euskaraz ikastearekin nahikoa dela aurrera egiteko. Ez da egia. Ez gara gai pentsatzen dugun hori euskaraz modu natural eta jatorrean adierazteko. Gazteek eta ez hain gazteok gaztelerara jotzen dugu erraz, eta asko eta asko ez dira gai euskaraz sentimendurik oinarritzkoenak eta erregistro ez-formalean adierazteko. Hizkuntzaren kalitateak behera egin du, eta horrek eragina du esparru guztietan: ikasketetan, kaleko erabileran, etxean... Globalizazioaren aurrean atzera egiten ari garenen sentsazioa dut.

Ez dago transmisiorik. Tentsioa desagertu da, eta ez dago aurrerapausorik. Herritarrek horren inguruko gogoeta egin behar dute, eta baita Euskara Elkar-teek ere. Mahai gainean jarri behar dugu une honetan bizi dugun egoera, eta etorkizunari begira zer egin nahi dugun eta zer izan nahi dugun erabaki. Herriak hausnartu egin behar du egungo egoeraren inguruan eta erabaki. Esan gabe doa erakunde politikoez guzti honengan duten ardura eta errua.

Aldizkariari dagokionez: Ez gara sekula handien modukoak izango. Txikitik eragiten eta beritzen ikasi behar dugu. Hori da gure berezitasuna eta abantaila. ...eta kitto!, esaterako, etxera heltzen zaigu eta asko estimatzen dugu, baina garai berriari begiratu behar zaio. Zer eta nolakoak izan nahi dugun erabakitzeko garaia da, nola erantzun erronkei: generoa, ekologia, hizkuntza-politika, kultura-politika... estilo-liburua behar da. Eibarren nola eragin nahi den erabakitzeko garaia dela uste dut, nortasun bat eratzeko garaia.



Ane Sarasketa



**Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak**

**Khôl
Estilistak**

Estaziño, 4 943 254776



Apalategi, 4 - 20600 EIBAR • Tel: +34 943 70 70 50
e-maila: mail@industriasmal.com • www.industriasmal.com

kazetariekin berbetan




Ibon Arakistain



Ane Sarasketak Fernandogana eraman ninduen. Markeskuako gela ilun batetan sartu ninduen eta berak ematen zituen diskurtsoetako baten lekuko izan nintzan. Fernando-ren lehen inpresioa oso gizon serioa zela iruditu zitzaidan. Laburrak idazten hasi nintzen eta 8 lerroko argazki-albistea niretzako mundu bat zen. Gainera ordenadorean idatzi behar genuen eta, nahiz eta kazetaritza ikasten ibili, EHU-n oraindik ordenagailuak ikutu ere ez genituen egiten (Leioan). Orduan dena idazteko makinetan egiten genituen. Beraz oraindik zailagoa niretzat. Poliki poliki albiste mardulagoak idazten hasi nintzen. Bat-batean Fernandok –hau ez zait inoiz ahaztuko, serioa eta bizia nintzela esan zidan eta atal berri bat zuela niretzako– firin-faraneko elkarrizketetara bideratu ninduen. Handik hilabete batzutara, Fernandok argazkilaria izan behar nuela eta Silbia argazkilariarekin hasi nintzen Markeskuako teilatuan argazkiak errebelatzen. Gogoratzen naiz behin tren istripua izan zela Azitainen (hildakoak eta guzti), eta argazkiak ateratzeaz gain errebelatu egin nituen Haritz Gallastegirekin. Errebelatzerako orduan tenperatura oso garrantzitsua zen eta Haritzek eta nik zerbaitetan kale egin eta argazki guztiak pikutara joan ziren. Zelako disgustua hartu genduan biok eta klaro Fernandori esan behar..... oso ondo ulertu zigun eta *Egin*-ek laga zizkigun argazki haiek. Geroztik, kiroletan ere sartu ninduen. Nik ez nuen oso gustoko, baina Fernandok horrenbeste tematu zen aukerarik ez nuela izan. Kiroletatik politena *Kirolkitto* sariak antolatzeko ardura eman zidanean. Iñaki Ugarteburu, Fernando eta hirurok biltzen ginen udaleko bere bulego zaharrean eta horrela sortu genduan *Kirolkitto* sariak eta urtekaria. Irratian ere ibili nintzen *Radio Estudion*, "Taupaden hotsa" programa egiten. Fernandok berriro ere, Udalak babestutako "Eibar ezagutzen" irrati saioaren buru sartu ninduen. Eibarko ikastetxe gehienak parte hartzen zuten. Ikasgai batzuk prestatzen zituzten eta gero irratian azterketa egiten genion umetxoei ikasitakoaz. Oso polita izan zen 14 urte inguruko umeekin irrati saio hori egitea....

...eta kitto!-n lan egitearen sarietako bat bertan zegoen lan taldearen giroa zen. Unibertsitate-tik heldu eta zuzenean ...eta kitto!-ra, arratsalde pasa edo goiz pasa. Askotan Unibertsitatean piper egin eta Markeskuan pasatzen genuen eguna....Orditik oraitzapen eta lagun onak ditut.



...eta kitto!-n kazetari lanak egiteaz gain beste betebeharrak asko geneuzkan. Elkarterako euskeraren erabilera neurtu Eibarko kaleetan. Arrateko Txosna eta behin inkesta politikoa....

Nik ...eta kitto! beharrezkoa ikusten dut, baina garai berri hauetan webgunearekin osatuz. Argazki edo bideo gehiagorekin. Bestetik, ...eta kitto!-k bere garaian ezarritako helburuak bete baditu, orain hausnarketa berri bat egin beharko litzateke norabidea eta erronka berriak zehazteko....



Cristina Baz Larrañaga

AHOLKULARITZA ETA ABOKATUA

- Atzerriratutakoak
- Lan arriskuen prebentzioa
- Fiskala
- Tributarioa
- Bitartekaritza
- Betetze arauemaileko zuzendaria

Errebal 9, 1 D
www.cristinabaz.com

943 12 80 55 - 630 64 21 75
cristinabaz@icagi.net

Betidanik esku onetan!

Isasi, 20
943 20 17 33
650 71 03 36
629 48 15 92
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com





Kazetaritza ikasliak giñala, euskera alkartia sortu zanian Oier Araolaza eta bixok Fernando Muniozgu-renengana jo genduan, aldizkarixan parte hartzeko prest genguazela esateko. Ia Eibarko euskeran idazteko gauza ete nintzan galdetu zestan; nik, larregi pentsau barik, baietz. Orduan, ...eta kitto!-ko aurreko etapako alien bildumia laga zestan, eibarreraz zelan idazten zebe begiratzeko eta denpora gitxian ikasteko. Handik egun batzuetara egin neban lehelengo alkarrizketia.

Duda barik, eskola zoragarrixa izan zan aldizkarixa. Eskolia baiño gehixago, Unibersidadia esango neuke. Makaleko suertia euki genduan holako formaziño erabat praktikua esku-eskura eukitta! Fakultadian landu bari-ko hainbat kontu ikasi genduzen ...eta kitto!-n: ediziño prozesua, ordenagailua eta kazetaritza hizkuntzia; lan-taldia, erlojua eta hankasartziak... Astekariko lehelengo urtietan, gaiñera, erredaktore-burua izatia be tokau jatan, eta aldizkarixaren bueltan ibiltzen zan kazetari-argazkilari tropela astero koordinatzia ez zan erreza izaten. Stress momentu batzuk izan arren, lagun-giro ona sortu zan danen artian.

Euskerazko toki komunikabidiak oso funtziño garrantzitsua dake. Jente pilla bati, euskeraz, gertuko informaziñua eskintzen detse. Oin 20-25 urte hasi ziran gehixenak, euskeria normalizatzeko. Denpora gitxian, baiña, gizartia erabat aldatu da, eta zer esanik ez komunikaziñuaren alorra. Sare-sozialak eta internet danon eskura dagoz: informaziño jarixua ikaragarrixa da. Euskerazko toki komunikabidieri oin sasoi barrixetara egokitzia tokatzen jakue, aurrea egitteko. Baiña zelan, diru-laguntzeri oso lotutako egiturak eta proiektuak badira? Gogoeta sakon baten premiñia dago etorkizunian be eragin nahi bada, proiektu komunikatibo senduak izan nahi badira. Eta senduak ez dau zertan haundixa esan nahi. Ausardixia, gogua eta idea barrixak bihar dira. Errezeta zaila da.




Oier Narbaiza

Ezer gutxi nekien nik ...eta kitto! aldizkarira iristean. Esan dezaket zerotik ekin niola bideari. Ordenagailuan sagua nola erabiltzen zen ere ez nekien. Gogoan daukat hartu nuen lehenengo aldi-antailan jarri nuela, hala kurtsorea mugituko zelakoan. Oraindik barre egiten dit zenbait ilustratuk. Hasierak hasiera, poliki-poliki ikasi egin nuen lanbidea: Albiste bat idatzi gaur, elkarrizketa egin bihar, erreportajea etzi, iritzi zutabea hurrengoan... Esperientzia handia hartu nuen denbora gutxian. Leioan oso teorikoa zen karrera eta ez batere motibagarria: Esaterako, bideo kameraren atalak ikasi behar genituen buruz, halako bat esku artean inoiz izan gabe. Aldizkarian, berriz, zegoen guztia erabiltzen genuen eta eskola bikaina izan zen. Horregatik pasatzen nuen denbora gehiago Markeskua inguruetan Leioan baino.

Idatzizko lanez gain, gogoan dut irratira ere joaten ginela saioa egitera: "Taupaden Hotsa". Oso akordu polita daukat saio hartaz. Oso ongi pasatzen genuen bai prestatzen bai programa egiten. Akordatzen naiz behin Koldo Mitxelena zenarekin nengoela kale egin zigula elkarrizketatuak. Orduan, saioa nola edo hala bete egin behar zela eta, panfletoak ekartzen hasi zen bata bestearen atzetik Juanma Cano teknikari handia. Nik bat hartu eta irakurtzeari ekin nion; Arrate Kultur Elkarteko erakusketa baten kritika zen; esaldi luze luzeak eta berba potolo potoloak. Hirugarren lerrorako ez nekien zer irakurtzen ari nintzen ere... Hasi ginen biok barrez eta gelditu ezin! Berriro hasi eta berriro barregura... Eskerrak Juanmak musika jarri zuela eta ez genuela entzule lar izango!


Une ederrak bizi izan genituen elkarrekin eta nik lan talde moduan baino lagun talde gisan gogoratzen dut hura. Zenbat parranda ahaztezin, zenbat kafe eta mundua konpontzeko ahalegin antzu Moxo tabernan... Pa-ella lehiaketa ere irabazi genuen eta!

Oso oroitzapen politak ditut garai hartaz. Gehiago kostatzen zait orainaz eta georoaz zerbait esatea. Iruditzen zait egungo astekaria mugatzen dela gertatu direnak kontatu eta gertatuko direnak aurreratzeri eta kontuan hartu behar da egun ia albiste guztiak eskuko telefonoetan jasotzen ditugula gertatu ahala. Horregatik uste dut paperezkoak beste zerbait eskaini beharko lukeela; elkarrizketak, iritziak, hausnarketak, herriko gaien inguruko eztabaidak; Merkatu plaza, autobus geltokia... Badakit, hala ere, botereari ez zaiola batere gustatzen hori guztia. Nolanahi ere, beti ulertu izan dut kazetaritza kontatu ezin direnak kontatzeko tresna moduan. Ziurrenik, horregatik ibiliko naiz euskara irakasle.



Mikel Arrillaga

argazki laborategitik




Silbia Arosa

Oso ondo gogoratzen ditut argazkilaria moduan ...eta kitto!-n bizi izandako momentuak. Garai hartan, 1993-1994 inguruan, argazkilaritza ikasten ari nintzen, eta ...eta kitto!-n argazkiak ateratzea proposatu zidatenean ez nuen bi aldiz pentsatu. Hori bai, lanean hasteko euskara ondo ikasi behar nuela esan zidan Fernando Muniozgurenak. Euskaltegian eman nuen izena eta gauza biak, euskara eta argazkilaritza uztartzen hasi nintzen.

Markeskuako azken solairuan argazki laborategia genuen eta komunean eta gela hartan errebelatzen eta papereratzen genituen argazkiak, horretarako likido kimikoak erabiliz. Beste sasoi bat zen, orduan ez zegoen kamera digitalik. Inprentara joateko bezperan oso berandura arte egoten nintzen Markeskuako teilatu azpian. Gero argazkiak eskaneatu eta Photoshop-ekin erretokatzen genituen. Markeskuan ez geunden ...eta kitto!-koak bakarrik, eskola konpentsatorioko ikasleak gure aldemenean zeuden ikasten, eta sarritan nirekin egoten ziren laborategian lana nola egiten nuen ikusten. Nerabeak ziren eta ni ere gustora egoten nintzen eurekin, han ni bakarrik beldur handia pasatzen nuen-eta. Eta hotza, batez ere kriston hotza! Orduak eta orduak sartzen ziren orduan argazkiak egiten.

Gogoratzen dut Aurora Baskaranek kargua utzi zuenean guri eman zigula lehenengo elkarrizketa, primizia lortu genuen. Artikulua ilustratzeko Aurorari argazkiak atera nizkion, eta errebelatzerakoan, ez dakit zergatik, ez zen argazki bakar bat ere ondo atera. Pentsatzean oraindik oilo-ipurdia jartzen zait. Aurorari deitu eta gertatutako azaldu nion. Oso ondo portatu zen. Berrito gauza bera ez gertatzeko eta argazkiak ziurtatzeko Antonio Irisarri nire aitagarrearekin egin nuen bigarren argazki-saioa. Txaltxa Zelain atera genituen argazki haiek. Ez zait inoiz ahaztuko.

Beste behin gogoratzen dut Su ta Gar taldekoak diska grabatzen harrapatzeko nire motorra hartu eta Lorentzo Records estudioetara (Berrizera) joan nintzela Ana Aizpurua "pakete" moduan eramanda. Oso momentu onak izan ziren.




Argazki guztiak nik errebelatzen nituen baina kazetariak ere ateratzen zituzten. Kamera desberdinak erabiltzen genituen eta errebelatzeko modua aldatu egiten zen kameren arabera. Eskerrak Photoshop gurela (oso modernoa zen sasoi hartan). Argazkiak erretokatzeko erabiltzen genituen. Ni aldizkaria zuribeltzean egiten zen garaian egon nintzen. Gero, aldizkaria koloretara pasa zenean, argazkiak lkatz-era eramaten ziren errebelatzera.


AYC
SEGURIDAD

**SEGURTASUN
INTEGRALERAKO
INGENIARITZA**


Urki behea, 1
Tfnoa. 943 70 17 95
ayc@aycseguridad.com



Otaola Etorb. 27, 1. ezk.
Tel. 943 12 72 68
Faxa. 943 12 73 28
E-maila: izalan@izalan.com



IZALAN 



**ERREMINTA
BEREZIAK**

Ignacio Zuloaga Institutua

BATXILERGOAK



Arteak

**Giza eta Gizarte
Zientziak**

Zientziak



Jardifeta 3 Eibar / Tel.:943208349 / Fax:943206048 / www.ignaciozuloaga.net / E-mail:012055aa@hezkuntza.net



Komikia: errealitatearen erakuslehiu

Gure komikilarien artean, **Ander Gisasolak** eman zituen urte gehien eta baita hain geure bihurtu zen **EUSTAKITTO**ren figura sortu ere. Berak behin baino gehiagoetan esan duen moduan, "Eustakitto batez ere ironikoa zen, beti kejaka zebilena, herriko obrak zirela edo dena delakoa. Eustakitto asko dago Eibarren eta ondo dago bakoitzaren gainean barre

pixka bat egitea". Gisasolak laga eta gero, aldian aldiko komikia kenduta, ez dugu besterik izan orain dela urtebete pasata **Idurre Iriondo** gurekin kolaboratzen hasi zen arte. Berak sortutako **TUTULUMENDI** dugu lagun, hamabostean behin, gure herriko errealitatearen berri-emate.



Sariak eta bestelako omenaldiak

Mende laurden pasatxo honetan hainbat sari eta errekonozimendu jaso ditu ...eta kitto!-k. **Rikardo Arregi Sariaren** lehenengo edizioan, 1989ko uztailko 15ean, Kandido Eguren Idoia Irazolak egindako elkarrizketagatik saria jaso genuen. Sari horrekin eibarreraz jardutea ere baloratu zuen epai-mahaiak. Ez hain aspaldi, 2009ko otsailaren 2an, bestalde, **Ukan Berrikuntza Saria** eman zion Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak ...eta kitto!-ri. Modu horretan saritu zuten hogeitaretan aldizkariak izandako aldaketak eta uneoro etorkizunera begira egotea.

2013a, bestalde, berezia izan zen guretzat, aldizkariaren 25. urteurrena tarteko. Horrela, sanjuanetan hainbat ekitalditan hartu genuen parte. Bestalde, hainbat errekonozimendu ere jaso ditugu gure herriko beste elkarrean partetik: Bakillauaren Kofradixak ohorezko kofrade izendatu gintuen, Amañako Jai Bartzordeak jaietako txupinazoa botatzera gonbidatu gintuen 2007ko jaietan. Eta beste hainbat errekonozimendu jaso ditugu hainbat kirol elkartetik, batez ere: Kalamua Judo Klubak saritu gintuen 1996an, Eibarko Txirrindularitza Elkarteak 2001ean eta Eibar Rugby Taldiak, esaterako, 2010ean.



Ukan Saria jaso zuen ...eta kitto!-k orain dela zazpi urte.



MILA ALE...

TA IXA MILA AITTITTA EUSTAKITTO AGERTZEN HASI ZALA

GOGORATZEN DOT ONDO...




AITTITTA EUSTAKITTO

ZE

ZELAN LORTU DOZU ETA KITTON AGERIZIA?

LAN ASKO EIN BIHAR DA TUTULU, ADI IBILI BETI!

BAI? BA AURREKUAN TABERNA KANPUAN GOMITTOKA AGERTU ZINAN



... AI ENE... TA ERREBALEKO OBRA HAU IKUSIKO DALEU...

EIBARKO LUR AZPIXAN LUR GAINIAN LAIN OBRA EIN DIRA!!!

APAR KATZEKO FENOMENO!

GAINERA EPEL...

eta Kitto! ASTEKARIA IRAKURTZEN AL DUZU? NOIZTIK?



JUANITA ARRALDE,
"62" urte, langabetua.
Nik sortu zanetik irakurri dot ...eta Kitto!. Eustakitto zeuanian hobia zan. Ha bai maitale ona



ANE YIN OLABE,
29 urte, administrazio.
...eta Kitto!-tik bota egin duten



OLENIZERO,
(?) opari banuzatitia.
Ni, batez be...eta Kittoko horoskopuan irakurria nai. Gauza hancan sinetu ein badaezpada Iragakiken asko gusatzen jata, bi jendiak ze nahi



HARKAITZ GISASOLA,
ondo betetako 73 urte, hitsigilia.
Nik betidanik irakurri izan dot ...eta Kitto!. Matxario ta Eustakitto askotan ideiak nik emoten natsen. A ze barriak eitten genduzen! Aprobetxatuko aukeria esateko soltero nacla.



... AITTITTA EUSTAKITTO...

HITZ EMOTEN DOT ZUK HASITAKO LANA...

ZEIN DAN ASMATUKO DOTELA!

Non daude ...eta kitto!ko bulegoak?

Gaur egun URKIZUKO DORREETAN du egoitza ...eta kitto! Euskara Elkartek (Urkizu 11, solairuartea). Bere sorreratik hainbat bider aldatu du lekuz ...eta kitto!-k. 1992an, Markeskua Jauregian hasi genuen gure ibilbidea Ikastolak lagatako lokal batean. Erredakzioa eta elkartearen bulegoa lehenengo solairuan zeuden. Horretaz gain, azken solairuan argazki-laborategia montatu genuen.

1996an Markeskua utzi genuen eta Armeria Eskolak errepidearen beste aldean duen lokalera joan ginen (Isasi 39).

Bi urte ondoren, 1998ko amaieran, Errebal kaleko Merkatu plazara joan ginen, kantinaren ondoan zeuden udalaren lokaletara.

2004. urtetik Urkizuko dorrean daukagu gure egoitza. Udalarena da lokala eta lehen Ikastolaren eskolaurrea egon zen bertan.

Markeskua jauregia (1992-1996)



Isasi 39 (1996-1998)



Merkatu plaza (1998-2004)



Nola bidali dezaket informazio bat ...eta kitto!-ra?

Erredakzioarekin harremanetan jartzeko edo edozein informazio bildaltzeko modu desberdinak daude:

Telefonoak: 943 20 67 76 / 943 20 09 18

E-mailak: erredakzioa@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus



Zeinekin egin behar dut berba ...eta kitto!-n nire enpresaren publizitatea jartzeko?


Itziar Albizu eta Belen Ulaziarekin egin dezakezu berba 943 20 67 76 telefonora deituta edo publizitatea@etakitto.eus helbide elektronikoa erabilita.

GASTESI

Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



ARRATEKO ANDRA MARI
HERRI IKASTETXEA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA
EZAGUTU GAITZAZU!

J.A. Iturrioz, 5 20600 EIBAR Tel: 943 20 72 35
Faxa: 943 25 77 34 e-maila: 012051aa@hezkuntza.net

Zer egin dezaket ez bazait astero etxera iristen?

...eta kitto!-ko zerrendetan baldin bazaude, aldizkaria astero jaso beharko zenuke. Arazoak badaude eta ez baduzu astekaria behar den bezala jasotzen, lasai dei egin dezakezu 943 20 67 76 telefonora. Ainhoa Luz banaketa arduradunarekin edo erredakzioko beste edozeinekin hitz egin dezakezu.

banaketa.etakitto@gmail.com helbide elektronikoa ere erabil dezakezu.

Eta gure zerrendetan ez bazaude eta astekaria etxean jaso nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan.



Zenbat denbora behar izaten da astekaria inprimatzeko?

Etxeetan banatu baino egun bat lehenago bidaltzen da aldizkaria inprentara. Aldizkaria guztiz maketatuta eta diseinatuta bidaltzen da. PDF formatoan helarazten diegu FTP bitartez, eta euren lana plantxak atera eta offset inpresioaren bitartez 8.100 ale inprimatzea izaten da. Ordu batzutan tinta sikatzen utzi eta, ondoren, manipulazio-lana dator, hau da, papera moztu eta aldizkariak banan-banan grapatzen dira. Oñatiko Gertu inprimategiarekin egiten dugu lana hasiera-hasieratik.



Noiz arte daukat epea informazioa bidaltzeko?

Barixakuan argitaratzeko astebete lehenago hasten gara lanean. Beraz, azken momentura arte itxaron beharrean, informazioa ahal den arinen bidaltzea komeni da; astebete lehenago baldin bada, hobeto.

Eskelen kasuan salbuespena egiten dugu, eta azken momentuan iristen direnak sartzeko ahalegin berezia egiten dugu.

Nola liteke 8.100 ale astero doan banatzea?

Publizitate-sarrerekin, ...eta kitto! Euskara Elkartearen bazkideen kuotekin eta Elkarreak urtean zehar egiten dituen hainbat ekitaldiekin (gabonetako otarra, Arrateko tonbola, pailazoak...) lortzen da proiektua finantziatzea. Bestalde, Euskal Herriko beste euskal hedabideek bezala, erakundeen ezinbesteko babesak dauka ...eta kitto! astekariak: Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundia eta Eibarko Udaletik jasotzen ditugu diru-laguntzak.



Zenbat banaketa-gune daude herrian?

Eibar guztira 10 gunetan banatuta daukagu, eta zona bakoitzean banatzaile batek jarduten du karrotxo batekin pegoraz pegora.

- 1) Estaziñotik Azitainera
- 2) Urkizu, Txonta
- 3) Plaza Barriatik Armagineraino Txaltxa Zelaitik pasatuz...
- 4) Errebal, Jardíñeta, Matsaria
- 5) Bidebarrieta, Zuloagatarren...
- 6) Arratebidetik Isasiraino
- 7) Erdialdea: Calbeton, Toribio Etxeberria..
- 8) Ipurua aldea
- 9) Urki aldea. Urkikurutzetik Sostoara...
- 10) Amaña auzoa eta Otaola

Saratsuegi auzoa herri-gunetik nahiko urruti gelditzen denez kotxez joaten gara.

Eibartik kanpora ere bidaltzen dugu aldizkaria. Gehienak Euskal Herrian, bereziki Gipuzkoan gelditzen dira, baina hainbat ale penintsulako beste autonomia erkidegoetara bidaltzen dira. 170 aldizkari inguru irtetzen dira Eibartik astero beste helmuga batzutarra.

B. Sarasketa, 1 ac **943 12 82 31**
*Kafea, opilak, ogia,
pintxoak, ardoak...* **Gozatu EIBARKO
PREZIORIK ONENEKIN!**
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTINDO
LABADEROKUA Egunero 06.00 etatik aurrera

*Abian dagoen negozioa alokatzen da,
erretiroa dela eta.*
AZALEA Edergintza
M^a Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310
Gorputz eta aurpegi estetika



**Miguel
De los Toyos**

Eibarko alkatea

Eskerrik asko herrixaren ispillu izatiagaittik

Esku artian dozuen hau ale berezi hau ...eta kitto! astekarixaren 1000. alia da eta, Alkate naizen aldetik, neure eskerrik zintzuen emon nahi detset aldizkarixa Eibarko herrixaren bizitzan sustraitu daben pertsona guztieri. Gure herrixan nortasuna zelakua dan primeran erakusten daben aldizkarixa dalako: kulturria, kirola, ohitturak eta puri-purian daguazen herriko albiste guztiak rebistak dittuan 32 orrialde horretan dagoz sartuta. Eskerrik asko baitta be eibartarrok geuria egin dogun argitalpen hau

gure izateko moduaren ispillua dalako. Hamentxe daukagu gure herriko euskeria be, aldizkarixak barixaku guzti-guztietan emoten deskun altxorra.

Arrazoi asko dagoz Udal honen altzuan jaixo zan gure herriko aldizkari honeri laguntzen jarraitzeko, Eibarko Udalak betidanik egin daben moduan. Gure eguneroko jardunian betikotu egin da eta, seguru nago, oindiok be urte mordua geratzen jakozela herrixan gertatzen diranen lekuko zintzua izaten segitzeko. Zorionak!



**Silbia
Hernandez**

..eta kitto!-ko erredaktore-burua

Bizitza osuan bidelagun

1994ko irailaren 23an, 83. zenbakixan argitaratu zan nik idatzitako lehen artikulua. Auzorik Auzo sekziñuari lotutako atalian, "Auzo kide" izenekuan emon eben argittara eta San Pio X.a elizara aillegau barrixa zan Jon Etxezarreta abadiari buruzkua zan. Ez jata sekula ahaztuko elizara zenbat buelta egin bihar izan nittuan, azkenian abadiarekin bat egi ttia lortu neban arte. Orduan erre dakziño burua zan Oier Narbaizak la sai egoteko esaten zestan behin eta barriz. Alperrik, baiña. Egunak juan egunak etorri aldizkarirako agindutako lehen lana betetzeko modurik ez neban ikusten nik eta tarteka lur jota be sentidu nintzan, idazten hasi aurretik kale egingo nebala buruan besterik ez nekan eta. Baiña segiduan lortu neban neretako horren larrixa zan egoeriarri bueltia emotia,

Markeskuan aldizkarixa etartzeko biharrian eguazanak lehelengotikan oso jatorrak begittandu jatazelako. Eta lehen inpresiño horrekin behintzat bete-betian asmatu nebala esan bihar dot. Markeskuara juaten hasi eta segiduan konturatu nintzan inguruko guztiak beti laguntzeko prest eguazela eta, horrerri esker, kazetarixa izaten ikastiarekin batera neure buruarengan konfidantza hartzen juan nintzan eta, konturatu orduko, hasierako beldur guztiak betirako uxatu nittuan. Eta, gaiñera, juaten nintzan bakotxian oso ondo pasatzen neban. Zer gehixago eskatuko neban ba?

Baiña ezer eskatu barik be, etenbarik segidu neban benetako altxorrak jasotzen: albistiak ahalik eta jende gehixenak ulertzeko moduan idazten, argazkixak etaratzen, informazi-

ño iturri ziranekin kontaktatzen, informaziñua kontrastatzen, irratirako gidoiak egitten, alkarrizketak egitteko galderak aukeratzen... Eibarko euskeria be ...eta kitto!-n ikasi neban, lehelengo Oier Narbaizak berak erakutsita eta geruago berak gomendatutako liburuak erabillitta... Paperezko bersiñuan gaur argixa ikusi daben aldizkarixa 1000. alera aillegau da. Pentsatzen hasiz gero, ez da marka makala euskera hutsian kaleratzen dan herri aldizkari baten dako. Neretako, barriz, gaurkua 917.a izango da. Ez dago txarto, batez be oin dala 23 urte Markeskuako atia lehelengoz pasau nebanian zelan nindoian pentsatzen hasiz gero. Naizenaren zati haundi haundi bat ...eta kitto!-ri zor detsat. Horregaittik, beste milla ale idatzitta be, oindiok zorretan egongo naiz. Betirako.



La Salle

Eibar

Urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA eta
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA



La Salle Isasi eta
Azitain Ikastetxeetan

AURREMATRIKULA ZABALIK
2017-2018 IKASTURTEA


Tfnoak. 943 202 133 / 943 121 698

www.lasalleibar.com



SOMOS ASESORES
Eibarko Txikito, 10 behea (EIBAR)
943 200 041
www.somosasesores.com

Zure enpresa sortzea nahi baduzu baina
ez badakizu nondik eta nola hasi...



ESPERIENTZIA EKINTZAILEA

25 urte enpresa martxan jartzeko
aholkularitza integrala eskeintzen.

emekin



1 NEGOZIO-IDEIA

- Zure enpresa nola sortu eta dirulaguntzen DOHAINIKO informazioa.

2 BIDERAGARRITASUN PLANA

- Zure enpresaren bideragarritasun plana DOHAINIK.

3 ABIAN JARRI

- Zure enpresa abian jartzeko tramiteak DOHAINIK.
- Urte batera arte aholkularitza dohainik eskuragarri EMEKIN-Emakume Ekintzailea" programaren bitartez.


EUSKARA

herria

ehbildu

ZORIONAK! BESTE MILA ALE
EUSKARATIK ETA EUSKARAZ!

PRISCILA VALDERRAMA



Oso ondo gogoratzen dut hasierako urte haietan Eibarko alderdi politikoen artean adostasuna egon zela ...eta kitto! aldizkaria sortzeko. Alderdi batzuk beste batzuk baino gehiago sinisten zuten proiektuan, baina orokorrean adostasuna egon zen, eta ideia Mikel Larrañaga alkatea zenean hasi zen sukaldatzen. Diru gutxi baino bolondres asko egon zen ...eta kitto!-ren inguruan, lanerako gogo handiarekin.

...eta kitto! astekaria jende guztiarengana iristen da, eta era askotako gaiak jorratzen dira, mugimendu sozialei buruzkoak ere. Nire ustez primeran ari da ...eta kitto!. Informatua egoteko modu ona da eta euskerak aurrera egiteko tresna beharrezko da. Erakundeek zeresan handia daukate horrelako gaietan, guztiendako onura ekartzen dute eta. Saiatzen naiz dena irakurtzen, eta zerbait ez badut ulertzen nire semeei galdetzen diet. Kirola, gizarte gaiak, eskelak, publizitatea... orokorrean dena ondo ikusten dut. Zorionak bene-benetan eta segi aurrera!

ARANTZA MATA



Pozez jaso nuen ...eta kitto! aldizkariaren sorrera. Bazkide noiz egin nintzen ez dakit, baina aspalditik naiz bazkide, horrelako egitasmo bat lagundu behar zela argi nuelako. Gertutasuna ekarri zigun ...eta kitto!-k. Euskarak espazioak berreskuratu behar zituen arlo guztietan Eibarren: eskolan, kalean... eta hutsune horiek betetzera etorri zen ...eta kitto!. Euskararen normalkuntzan bete beharreko espazioak dira, estrategikoak, eta ...eta kitto! erreferente garbia izan dela uste dut. Gaur egun ez da erraza komunikabideen arloan zentralitatea izatea, baina

...eta kitto!-k bere lekua izaten asmatu duelakoan nago. Beharrezkoa dugu ...eta kitto! bezalako espazio eta elkarte bat herrian. Aldizkariak begirada non jarri asmatu zuen eta gaur ere asmatuko duelakoan nago. Hori bai, elkarteak egiten duen lanari bultzada emateko herritarrak alboan edukitzea beharrezkoa izango da, euskarari bidea zabalduz eta erraztasunak emanaz.



...eta kitto!-ko
80. alean
(1994. urtean)



...eta kitto!-ko
58. alean
(1993. urtean)

EIBAR - PERU

GARDENTASUN-TXOSTENA

Elkarkidetzaren emaitzak zuzenean

Urtarrilaren 26an, 19:30ean
Eibarko Udaleko Pleno Aretoan

Txostengilea: Wilmer Bermejo Requena

CIPCA (Peru) Garapenerako Lankidetzaren
Organizazioko Proiektuen Koordinatzailea

www.cipca.org.pe

ANTOLATZAILEA:



FINANZIAKETA:



Izadi

LORADENDA

Lora eta landare natural eta lehorrak

Ezkontzetarako lorak

Zentroak

Erramuak

Enkarguak etxera

San Juan, 1
Tel. 943 20 33 29

gestilan asesores

Zezenbide, 4-behea

Telefonoa
943 20 70 02

Faxa
943 20 87 92

e-maila
gestilan@gestilan.es

web orria
www.gestilan.es

JOSE ANDRES URKIA



90. hamarkada hasieran izan nuen lehen harremana ...eta kitto!-rekin. Herri-kiroletan nenbilenez, horren bitartez hasi zen lotura. Gainera, Fernando Muniozgurenekin harreman handia neukan. Bolo eta hiru txirloari buruzko berriak hedatzeko kanal oso garrantzitsua da ...eta kitto!. Zentzu horretan, Eibarko Kirola Sarietan urtero egoten gara. Aldizkariak eboluzio aberatsa izan du. Maketazio aldetik, zuri-beltzetik koloreetara pasatzea demasa izan zen, eta webgunea edukitzea ere aurrerapauso handia izan zen. Nik berba onak bakarrik ditut ...eta kitto!-rentzat. Hobetzeko gauzak egongo dira, ziur; baina, ilusioarekin, eta euskara eta herriaren alde jarraitze soila ere zoragarria izango litzateke. Gainera, egoera ekonomikoari aurre egiten jakin dio eta horrek meritu bikoitza dauka. Aipatu, bestetik, nire lehengusu Javik, Jontxitok eta Urkia anaiok 20 urte daramatzagula Sanferminetara joan eta bertan ...eta kitto!-ko ale batekin argazkia ateratzen. Ohitura polita da.




...eta kitto!-ko
814. alean
(2012. urtean)

ROBERTO AIZPURUA



Gustura hartu genuen ...eta kitto!-ren sorrera, gogo askorekin. Orduetik, beti jaso izan dugu etxean eta, astero, etxeko guztiok irakurtzen dugu: emazteak, semeak... Barixakuetako ohitura bihurtu da urteen poderioz. Garrantzitsua da ...eta kitto! moduko aldizkari bat edukitzea. Edukiei buruz, gauza batzuekin konforme nago, beste batzuekin igual ez hainbeste, baina gustura irakurtzen dut eta ondo dago Eibarko aktualitatearen berri edukitzea.

Ni neu hasiera batean gehiago agertu izan nintzen gaur egunean baino. Ikusten dut orain arlo gehiago hartzen dituela barne aldizkariak, gai gehiago tratatzen dituela. Aldizkari handiagoa da orain, biribilagoa eta dibertsifikatuagoa. Pentsatzen dut ...eta kitto! denbora luzez izango dugula gure artean. Eibarren beti dago zer kontatu. Gaurkotasan-albisteak etengabe irteten dira eta hor egon behar du ...eta kitto!-k. Gainera, eroso da aldizkaria irakurtzea, buzoian bertan jasotzen duzulako.



...eta kitto!-ko
48. alean
(1993. urtean)

Larragest



353 zbk.

F. Calbeton, 22-24


INMOBILIARIA
690 610 715


ASEGURUAK
943 200 795

Zorionak
...eta kitto!




- Frogatutako eraginkortasuna
- ◆ Arau-betetzea
- ◆ Prezio merkea
- ◆ **Canon** garantia







Eficacia



Precio Económico



Cumplimiento Normativo




Garantía Canon

Hau da CANON-ek eskaintzen dizun sententzia

comeandsee

Urtzaile, 8 - behea
Tfnoa. 943 20 05 53



MIKEL GOROSABEL "NORTON"



Gogoratzen dut 80. hamarkadaren amaieran, ...eta kitto! aldizkaria martxan hasi zenean, argazkilaria moduan ibili nintzela bertan. Gero, *Egin* egunkarian ere jardun nuen, izan ere, San Andres eskola alboan zeukan egoitza, orain parkina dagoen inguruan. Fernando Muniozguren ere gogoan daukat, ...eta kitto!-ren sortzailea. Nire argazkilaria aldea gogorarazten dit sasoi horrek eta, gero, musikari moduan hasi nintzenez, beste aldera pasa eta niri egin dizkirate hainbat elkarrizketa

...eta kitto!-n. Herritarrentzat beti da interesgarria euren herriko albisteak jasotzea. Beraz, herria irakurleengana hurbiltzea, oso garrantzitsua da. Ni orain kanpoan bizi naiz eta ez dut etxean jasotzen, beraz, ez dut aldizkaria lehen beste irakurtzen. Hori da paperean jasotzearen abantaila, beti eskuragai duzula. Hala ere, interneten irakurri izan ditut artikuluak.



...eta kitto!-ko
51. alean
(1993. urtean)

MARISOL ARRILLAGA



...eta kitto!-ren hasierari buruz dudak oroitzen da ilusio handia eman zigula bere sorrerak. Euskarazko aldizkaria, irakurterraza eta denontzako zena. Etxean denok irakurtzen genuen aldizkaria. Eibarren gertatzen zena eibartarroi hurbiltzeko balio izan zuen. Gertuko informazioa ekarri zigun, beste modu batean jakingo ez genituen kontuak.

Orain, Elgoibarren bizi naiz eta ez dut astero irakurtzen, baina bai sarritan. Pentsatzen dut lehen albiste gutxiago argitaratzen zirela, baina borobilagoak agian, eta orain kontu gehiago jasotzen ditu aldizkariak. Agenda ere oso ondo dagoela uste dut, herrian egongo dena jakiteko. Bestetik, nire ikasleen artean ...eta kitto!-ren sare sozial eta webgunera jotzeko joera ikusten dut.

Pentsatzen dut jendeak ...eta kitto! irakurtzen duela zein hizkuntzatan irakurtzen duen jabetu gabe. Barneratuta daukate aldizkaria euskaraz dela eta normal ikusten da, natural. Gainera, ez ditut euskaldunak bakarrik ikusten aldizkaria gainbegiratzen, baita euskaraz ez dakitenak edo ondo ez dakitenak ere. Hori gustatzen zait.



...eta kitto!-ko
7. alean
(1989. urtean)





Funeraria Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

ZORIONAK Eibarko
Elkarte Sozialistaren partez!




PSE-EE

PSOE

Izan daitezela, gitxienez,
beste MILLA ALE!

KONTXA LASPIUR



Oso garrantzitsua da euskarazko aldizkaria edukitzea. Nik euskararen alde eman dut eman beharrekoa eta espero dut belaualdi berriek ere horrela egitea.

Astero nago ...eta kitto! berriaren zain. Gustuko ditudan gaiak gustura irakurtzen ditut, herriko kontuak interesgarriak direlako: ezagunei egiten dizkieten elkarrizketak, taldeek egindako txangoak... Aldizkaria etxera heltzen ez zaidan bakoitzean, ekartzeko deitzen dut. Goitik behera irakurtzen dut. Irakurtzen erraza da eta, gainera, eibarreraz

hainbat albiste daudenez, niri erosoagoa egiten zait irakurtzea.

Gaur egun, sarritan ez ditut ezagutzen aldizkarian agertzen diren pertsonak. Lehen bai, ia denak ezagutzen nituen. Horregatik, beti gogo handiarekin hartzen dut ...eta kitto!, baina lehen are gogo gehiagorekin, ea ezagunen bat agertzen zen, baina gaur zailagoa da. Pentsatzen dut, hala ere, belaualdi berrientzat oso interesgarria dela astero aldizkaria jaso eta irakurtzea.

OSKAR ARTETXE



Barixakuren baten ...eta kitto! etxera ez bazaigu heltzen, komeriak! Beti gaude aldizkariaren zain, ea noiz helduko den. Izan ere, ...eta kitto! oso garrantzitsua da herriarentzat, Eibarren betetzen duen papera berebizikoa delako.


Nik gustura jasotzen dut ostiralero. Albisteak begiratzen ditut, herrian azken astean zer gertatu den jakiteko; agenda ere oso kontutan hartzen dut, astean zehar egongo diren ekitaldien berri izateko; farmazien informazioan fijatzen naiz,

badaezpada; eta, noski, kirol atalari ere begiradaxo bat botatzen diot. Ni neu agertu izan naiz aldizkarian, foballaria nintzen sasoian.

Espero dudana da ...eta kitto!-k urte askotan jarraitzea. Ziur gauza batzuk hobetu daitezkeela, baina nik, printzipioz, ez diot ezer faltan botatzen eta ondo ikusten dut dagoen moduan. Aurrera jarraitze soila ere berri zoragarria izango litzateke, esan bezala, oso beharrezkoa ikusten dudalako herriarentzat.



...eta kitto!-ko 6. alean
(1989. urtean)



...eta kitto!-ko 212. alean
(1997. urtean)



25 urte eibartarron zerbitzura

AHOLKULARITZA eta GESTIOA

Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com

EGOLAN

Julian Etxeberria 7, 7-C

Eskerrik asko gure bezero guztiei



garajesGarcía.com

Auto berrien, erabilitakoen eta KM0-koen SALMENTA

Begiratu gure finantziazioak autoa erosterakoan

BANATZAILE OFIZIALA:
Enganches ARAGON

943 202 214
943 127 271



Kalefakzio gehigarria (urtarrilean)



Inmobiliariak (otsailean eta azaroan)



Ezkontzen gehigarria (martxoan eta urrian)



Autoen gehigarria (apirilean eta ekainean)



Moda gehigarria (maiatzean)



Dekorazio gehigarria (maiatzean)



Oparien gehigarria (abenduan)

Barixakuetan buzoi guztietan

Astero **...eta kitto!** IRAKURTZEN duzuenok eta herriko DENDA, TABERNA, ENPRESA eta ELKARTEEK egiten duzue posible hainbeste urte eta gero aldizkariak aurrera jarraitzea.

Irakurlerik gabe eta euskaraz saldu daitekeela sinisten duzuen guztiok gabe ezinezkoa litzateke proiektua mantentzea.

Astekarian publizitatea egiteko modu desberdinak eskaintzen dira (modulo txikiak, faldoiak, orri erdikoak edo osokoak, publiekreportajeak...). Horretaz gain, urtean zehar GEHIGARRI BEREZIAk kaleratzen dira. Eta hilero Osasun eta Gremioen Gidak.

Mila esker bezero guztioi!!



Orain dela 24 urte atara genuen lehen **gida komertziala**. Urtean behin kaleratzen da, urtea amaitu aurretik, eta herriko komertzio, industria eta zerbitzuei buruzko informazio praktikoa ematen du.



Hauteskundeen emaitzekin ateratzen ditugun aldizkariak ere aukera paregabea eskaintzen dute publizitatea egiteko. Emaitzak auzoz auzo, politikoen iritziak, balorazioak... A3 formatoan eta paper berezian. Produktu erakargarria izaten da publizitatea egiteko.



**"Zorionak 1.000 aleengatik
 ...eta kitto!-ri
 eta Eibarko euskara
 lantzen jarraitu"**

Zezenbide, 7 - behea

EIBAR 943 531 261 / 688 669 479
sofás

Karmen, 15

EIBAR SOFÁS

URKIZU IKASTETXEA

30 urteko esperientzia sektorean

%20ko DESKONTUA
ERAKUSKETAKO
SOFATAN (urtarrilaren 31-ra arte)

ORDUTEGIA
 astelehenetik zapatura
 10:00-13:00 eta 16:30-20:00
 ASTELEHEN GOIZETAN ITXITA

BENICOBA

cenor
 Etxeko tresnak
 Sukaldeko altzariak

BEHAR DUZUNA LORTZEN
LAGUNTZEN DIZUGU

Ezberdinak garelako!

Juan Gisasola, 14
 Telefona: 943 20 39 02 Mugikorra: 606 83 83 61
 benicoba@terra.com

giltzak
 SEGURIDAD

Segurtasun handiko ate berriak betiko profesionaltasunarekin.

Zatoz eta informa zaitez!

www.innmotion.es/puertasdeseguridad

Arragueta, 3 - Eibar 943 70 13 91

asociación de comerciantes de eibar

eibarko dendarien elkarte

ZORIONAK, ...ETA KITTO!
 Jarraitu holan, beti euskara defendatzen.
ORAIN... BESTE 1.000.

Beitru
 Zentro Optikua

R.P.S. 253/14

J. Etxeberria, 13 943 700 230

%20

%30

%50

DESKONTUAK
 Eguzkitarako eta graduatuetan

Eibarko aldizkariak 90. hamarkadan

1988an ikusi zuen argia ...eta kitto! aldizkariak Fernando Muniozguren Udaleko Euskara Saileko arduraduna zenean. **1991ko abenduko** alean aldizkariaren lehenengo 3 urteen balorazioa egin zuen Fernandok: *"funtzio inportanteena euskaraz irakurtzeko ohitura sortzea da; badakigu jende askok jakin arren, ez daukala euskaraz irakurtzeko eta idazteko ohiturarik. Beraz, jende horri informazio gertukoa eta atsegina eskainiz, jende horren artean irakurtzeko zaletasuna sortzea nahiko genuke. Bigarren helburua kazetaritza ikasten diharduen jendeak egiten duenez, jende honi praktikalako plataforma bat eskaintzea litzateke, komunikabide bat zer den jakin dezan. Beste helburu edo xede bat Eibarko komunikazio arloan euskarak ere bere lekua hartzea litzateke, batez ere kontutan hartuta biztanlegoaren % 45 euskalduna dela. Bestalde, interesantea da esatea ...eta kitto!-ren inguruan ez gaudela bakarrik inplikatuak egiten dugunok. Hortik aparte publizitatea euskaraz egiten dutenak (hau garrantzitsua da zeren demostratzen du euskarak ere saltzeko balio duela), eta kolaboratzaile eta irakurle sutso asko daukagu, eta horiek ere ...eta kitto!-ren familia osatzen dute".*

Eibar aldizkaria

...eta kitto! ez zen urte haietan argitaratzen zen aldizkari bakarra. ...eta kitto! jaio zen garai hartan Pedro Zelaia apaizak 40 urte zeramatzen "Eibar" aldizkaria hilero kaleratzen. Hasiera baten "orri parrokiara" moduan plazaratzen bazen ere, arduradunek argitalpen hau zabaltzea eta sekularizatzea erabaki zuten. Pedro Zelaiak azaltzen zuenez, *"aldizkariaren helburua Eibarko historia, berriak, asmoak eta kultura zabaltzea da. Eibar aldizkaria beti izan*

da euskarazalea. Izan ere, aurreko erregimenean ere saiatzen ginen euskaraz publikatzen". Hilean behin argitaratzen zen, 1.000 aleko tirada izaten zuen eta 75 pezeta balio zuen. Gaur egun Eibar aldizkariak bizirik jarraitzen du eta urtean 6 ale ateratzen dira.

Kezka aldizkaria

Epe luze batean argitaratu gabe egon ondoren, sasoi hartan eibartar gazte talde batek proiektu berri bati ekin zion Jose Valderrey eta Jose Luis Gorostegiren ardurapean. Klub Deportiboaren argitalpen hau urtean behin euskaraz zein gaztelaz argitaratzen zen, 3.500 aleko tirada izaten zuen, eta Klub Deportiboko batzorde desberdinetako informazioaz gain, batzordeekin zerikusirik ez zeukaten gaiak ere lantzen zituzten. 2002. urtean bertan behera gelditu zen proiektua.


"Porrot" eta "Habemus" fanzineak

Batipat gaztediari zuzenduak, medio gutxiok eta taberna batzutan salgai. Garai hartan Porrot kaleratzeaz arduratzen zirenek azaltzen zuten, *"Porrot edozein gaitaz arduratzen da, kezka zituen jendea zuzenduta dago"*. Bi hilabeterik behin argitaratzea zen, euskaraz eta gaztelaz. Hala ere, medio ekonomikoen menpe egoten ziren. 1985. urtean sortu zen. Aldizkariaren inguruan 10 lagun inguru ibiltzen ziren eta aldizkaria kaleratzeaz gain beste hainbat gauza ere egiten zituzten: antzerkia, kontzertuak, diapositibak, argazki erakusketak.... 900 ale kaleratzen ziren era 100 pezeta balio zuen. "Habemus" aldizkariak ez zuen aldizkotar sun fijoarik, dirua zeukatenean argitaratzen

zuten eta *"politikaz paso egiten zuten guztiei zuzenduta"* zegoen. Eibartik kanpo arrakasta handiagoa izaten zuen (Bilbo, Lekeitio, Madril...). 300 ale ateratzen ziren, gaztelaz, eta 125 pezeta balio zuen.

Udala

Udalak bazeukan "Udala" izeneko aldizkari propioa. Helburua eibartarrei Udaltxean egiten zenaren berri ematea zen, *"herritarrekin harreman zuzena izatea"*. 11.000 ale argitaratzen ziren hiru hilabetero euskaraz eta erdaraz.



Haur eta Lehen Hezkuntza

Jantoki zerbitzua / Goizeko zaintza

Bidebarrieta, 34 • 943 20 79 95 - 688 823 209
e-maila: 012049aa@hezkuntza.net



thyssenkrupp

Indalezio Ojanguren, 2 - behea
Tel: 943 82 01 09 / Faxa: 943 82 01 62
E-maila: eibar.tkees@thyssenkrupp.com

Herriko irratixeri ahotsa euskeraz ipintzen

Gaur egunian Radio Eibar Cadena Ser emisoran diharduan Juanma Canok ...eta kitto!-n idazten ibillitako kazetari askorekin batera jardun eban irratixan, soiñu teknikari modura eta baita irakasle lanetan be (berak bigarren hori ukatzen daben arren). Edozelan be, emisoratik pasau ziran kazetaritza ikasleri irratixa egittia zer dan berak erakutsi zetsen, orduan sasoian berarekin batera ziharduan Jose Luis Martinekin batera.

Fernando Muniozgurenak eta Jose Luis Martin orduko Radio Estudioko zuzendariak alkarlanerako hitzarmena siñatu eban 1993an eta, horrerik esker, orduan sasoian unibersidadiak eskintzen ez eban aukeria zabaldu jakuen aldizkarixan idazten eban kazetaritza ikasleri. Zezenbide kaleko emisoria irratixa bertatik bertara ezagutzeko primarako eskolia izan zan eta herrixan bertan euskerazko irratsaio bat egitteko atiak parez pare zabaldu zetsazen kazetarixeri.

Hitzarmena siñatu eta segidan aillegau zan lehen saiua, astian behin kultur ekintzen barri emoten eban "Berrikitto" izenekua, Oier Araolaza eta Ane Sarasketaren eskutik. Hillebeteko kontua izan zan Onda Cero-rekin antzerako hitzarmena siñatzia. Hor sortu zan bigarren irratsaiua, "Bertatik bertara", Letizia Gomez eta Jose Luis Gorostegi gidari zittuala. Oporren ostian, martxan eguazeneri gehitu jakuezen programa barrixak sortu ziran: "Taupaden hotsa", Ana eta Maider Aranberriekin Radio Estudion. Eta Onda Ceron, barriz, "Hari-harixan" izenekua, Oier Narbaiza, Amaia Muruamendiaraz eta Enrike Izagirrekin. Urtietan izen berarekin aurrera egin eban irratsaiuak, baiña ahots diferentia tartekatuta: Lierni Ibargutxi, Koldo Mitxelena eta Maite Arrazolak bete eban aurrekuak libre lagatako tokixa eta, geruago, Silbia Hernandez, Eva Juez eta beste batzuren txandia aillegau zan.

Horrekin batera, lehendik herrixan euskeraz emititzen eban Arrate Irratixak be rebistarekin lotutako gaixen barri emoteko tartia euki eban luzaruan. Eta pixka bat geruago, 2000. urtian sortu zan "Txutxu-putxuka" izenekuak arrakasta haundixa euki eban. Ainara Argoitiak eta Borja Rodriguezek aurkezten eban saio hori bereziki DBHko gaztien-dako sortu zan, edade horretako ikaslien ar-

tian Eibar ezagutzera emoteko asmuarekin eta lehiaketa modura planteautu.

Denporiak aurrera egin ahala, aldizkarixan idazten eban kazetarixak ikasketak amaittu eta bakotzak bere bidari ekin zetsan eta, horrekin batera, sasoi batian indar haundixa euki eban kolaboratzaillien figuria desageritzen hasi zan eta apurka-apurka irratiko ahotsak amatatzen jua ziran. "Berrikitto"-ren azken saiua orduko lantaldeko gaztienetakuak ziran Izaro Aulestiartek eta Iker Aranberrik egin zittuen.

Beste emisoretan barri emotaile

Baiña irratsaiuak desagertuta be, oin dala urte gitxira arte ...eta kitto!-k tarteren bat betetzen segidu dau moduren batian edo bestian. Silbia Hernandez aldizkariko erredaktore buruak Bizkaia Irratixan hiru asterik behin berbetan jardun eban programaziñuan herri aldizkerixeri eskindutako tartiari eutsi zetsen bittartian eta Herri Irratixan be aldizkariko barrixak emoten ibilli zan.

Irratixan ez eze, telebisiñuan be euskerazko edukixak eskintzeko saiakeria egin zan eta, KTB Eibarko telebisiñua martxan eguala, orduan sasoian aldizkariko erredaktore burua zan Oier Narbaizak "Berbetan" alkarrizketa saiua eskintzen jardun eban.

Edozelan be, irratixarekin lehen kontaktu hori bizitzeko suertia euki eban guztiak esperientziaren inguruko oso oroitzen polita dake gaur egunian be. Eta gauza bera pasatzen jako Juanma Canori, emisoratik pasau ziranen inguruan zer gogoratzen daben galdetzerakuan: "Zuzeneko saiua izaten ziran, neuk kontrolatzen nebana eguen eguardixan egitten zan eta bestia, barriz, Jose Luis Martinekin egitten eban, arratsalde. Goguan daukat sintoniak kartu-txuetan grabautu egoten zirala, digitalizazi-



Juanma Canok sasoi hartako oroitzen goxoak daukaz.



Ainara Argoitia eta Borja Rodriguez "Txutxuputxuka" saioa aurkezten.

ñua oindiok aillegau barik eguan eta. Musikia be neuk sartzen neban eta, denporiak, Nagore Bengoetxea hasi zan kontrolian, horretarako ikasi eban eta". Baiña, errelebua aillegau zan arte, jakiña, Juanma arduratzen zan kontrol mahaixarekin eta enparauekin.

Ilusiño haundixarekin egindako saiua

Kristalaren beste aldi irratsaiua egittiaz arduratzen ziran gaztiak jartzen ziran eta, sarritan, eurekin batera alkarrizketia egittera juandako gonbidaturen bat be egoten zan. Orduan sasoian Radio Estudio zanak herriko informaziñuarekin betetzen eban programaziño osua, eguneko 24 orduak, baiña ...eta kitto!-k egitten zittuan saiuetatik kanpora ez eguan besterik euskeraz: "Egixa esan, urtietan hórrek izan dira euskeraz emon dittugun programa bakarrak, guretako nobedade pozgarrixa izan zan".

Bestalde, kazetarixendako radixuarekin zeke lehen kontaktua izanda be, "oso mailla ona" zekela diño: "Jende guztiak ondo emoten eban mikrofonuan, saiua oso ondo preparautu ekartzen zittuen beti, euren onena emoten eban danak eta begibistakua zan ilusiño haundixarekin eta gauzak ondo egittuko goguarekin etortzen zirala".

Proiektuaren sortzailea

FERNANDO

MUNIOZGURENen burutik jaiotako proiektuari bueltak eta bueltak eman zizkion sortzaileak, 2006ko uztailean laga gintuen arte. Haren kutsua nabaritzen zaio oraindik astekariari eta Eibarko euskerak presentzia haundia du publikazioan.

Proiektu kutunetakoak zuen berak aldizkari hau eta loari ere askotan lapurtu zizkion orduak ...eta kitto!-ren inguruko hausnarketari lotzeko. Lan mardula eta nekazina Fernandok egin zuena, benetan!

55 urterekin, gazte joan zitzaigun Fernando, baina euskeraren alde egindako lan mardulak bere lanbidearen arlorik nagusiena bete zuen; horrez gain, beste hainbeste esparru jorratu zituen, batez ere pentsalari eta komunikatzaile moduan.

Filosofian lizentziatua Vincenneseko Unibertsitatean, irakaskuntzan hasi zen eta lan horretan amaitu zuen bere ibilbidea. Tartean, Eibarko Udalean euskara teknikaria eta Batzordeko arduraduna izan zen hainbat urtetan eta gure herrian euskara zabaltzeko eta normalizatzeko zereginean aitzindaria izan zen. ...eta kitto! astekariaren sortzailea izateaz gain, izen bereko Euskara Elkartearen sorreran ere parte hartu zuen. Baita Badihardugu Deba Bailarako Euskara Elkartearen sorreran eta Zarauzko Txaparro Euskara Elkartekoan ere. Horrez gain, bera izan zen Euskara Elkarteen Topaguneko lehen presidentea.



Bizitza erdia ...eta kitto!-n

Oraindik 20 urte bete barik zituenean, 1993an, zapaldu zuen KOLDO MITXELENAK lehenengoz ...eta kitto!-ko bulegoa. Markeskua jauregian zegoen orduan elkartea eta ilusioz betetako Kazetaritzako ikasleak bertan eman zituen lehenengo

pausak kolaboratzaile moduan. Arratsalde unibertsitatera, eta goizez ...eta kitto!-ra. Bost urte lan horretan jardun eta gero, 1998an, langile moduan hasi zen beharrea eta, orduetik, 2014an laga gintuen arte, bera izan zen ...eta kitto!-ko koordinatzailea, elkartea eta aldizkariaren arteko zubi sendoa. Agintzea gustatzen ez zitzaion gidari bihurtu zen, arazoaren aurrean lankideekin lasai berba egiteko gauza, eta ingurukoak motibatzen lehenengoa. Kanpora begirako gure aurpegia bihurtu zen Koldo.

Euskaltzalea, euskerarentzat bizi zena, euskera denontzat zela uste zuen eta hemendik egiten genuen guztia euskeraren alde egin behar genuela aldarrikatzen zuen. Euskeraren transmisioaren inguruan ere bazuen bere kezka eta, ardura horrek bultzatuta, Txikitto! umeentzako hilabetekaria jarri zuen martxan 1996an. Umeek hileroko euskerazko aldizkaria jasotzea eta hori lantzeari garrantzia eman zion, herriko ikastetxeekin elkarlan estuan jarduteko.



Kolaboratzaileen lan bikaina


Kolaboratzaileen figurari esker, asko erraztu da rebistaren ibilera eta, ez hori bakarrik, gai interesgarriak modu finagoan lantzeko aukeria izan dugu aldizkarian. Kolaboratzaile horiek aukeratutako gaietan jantzita zeudela erakutsi dute eta, eurek egindako aportazioarekin, geroago liburuetan batu eta publikatzeko aukera ere eskaini digute. Hemen doaz euretako batzuk: *Hartzaren Kobatik* (Oskar Rekalde), *Gure historian zihar* eta *Kalian izena pertsonajian izana* (Pedro Zelaia eta Aitor Ogiza gero), *Literatura eta Aldizkariak* (Ane Sarasketa), *Landateittik* (Juanjo Sebastian), *Jubilatuak... eta kitto* (Josu Arkotxa, Dionixio ezizenarekin), *Bertoko euskerian gaiñian* eta *Jakinbearrekoak* (Bego Azpiri), *Musika* (Aitor Gorosabel), *Ñu-ren gramofonuan* (Ernesto Esparza), *Arratetiko mundua*, *Eibarko euskeria* eta *Jolas eta jokuak* (Imanol Laspiur), *Efemerideak* (Nerea Areta), *Literaturaz blai* (Iñaki Zubillaga), *Lapikotxiki* (Estibalitz Gonzalez), *Eibarko berbak* (Juan Andres Argoitia), *Informatika* (Mikel Larreategi)... eta abar luzea. Gaur egunean ere beste hainbeste kolaboratzaile fin horietakoek lortzen dute interes berezia ematea zuengana helarazten dugun informazio guztiari. Musutruk, gainera!



Transmisiorako erreminta

Irakurzaletasuna Eibarko umien artian zabaltzia zen Txikitto! aldizkariaren sorreran ...eta kitto!-k eta Eibarko ikastetxeek ipinitako helburu nagusia. Azken urteetan, gainera, gurasoen parte hartzea sustatzeko asmoarekin, transmisiorako erreminta moduan diseinatzen dute ...eta kitto!ko lantaldeak eta ikastetxeetako ordezkariak.

1996. urtean ikusi zuen argia 6 eta 12 urte bitartekoen artean banatzen den produktuak. Bi dira aldizkariak dituen osagarri nagusiak: umeendako eta gurasoendako apropos sortzen diren artikulu eta elkarrizketak eta umeek eurek egiten dituzten lanak (txisteak, denborapasak...). Umeek gustora hartzen dute parte, gainera. Formato aldaketa asko izan ditu aldizkariak: bi koloretako produktua, A4 formatokoa, A5 formatokoa eta webgunean zintzilikatzen zen sasoia ere ezagutu zuen. Gaur egunean paperean kaleratzen da berriro, koloretan gainera. Eibarko ikastetxe guztietan banatzen da.



w w w . a l d a t z e . o r g

aldatze

**VI. ALDATZE
DENOK GARA**
otsailaren 4an
11.00etan

Urte askotarako!

Ez da erronka makala herri aldizkari batentzat 1.000. zenbakia kaleratzea. Proiektu hori as-tero-astero ahalbidetzen duen lantaldeak harro egon behar du, inork egotekotan. Zenbat kontu ez ote ditu zabaldu, zenbat emakume eta gizon ezagutarazi Eibarko pegorak urteotan!

Lehenengoetariko agerkaria izan zen ...eta kitto! euskarazko tokiko informaziogintzan; Arrasate Press, Ttipi-Ttapa eta hirurak izan ziren aitzindari Euskal Herriko idatzizko herri kazetagitza: laurogeiko hamarkadaren amaierako urteak ziren. Hilabetekari moduan sortu ziren, euskararen normalizazioan laguntzeko eta herriko informazioan zegoen hutsunea betetzeko: horiek ziren hasieran espresuki adierazitako funtzio nagusiak.

Baina horiez gain, bestelako ezaugarriak ere erakutsi ditu ...eta kitto!-k harrezkero: ausardia bide-erakusle moduan halako proiektua martxan jartzeko; apustu egitea hutsik egin gabe egitasmoa aurrera ateratzeko; konfiantza lantaldean eta ekinbideetan; hasi berria zen tokiko aldizkarigintzaren etorkizuna aurreikusteko gaitasuna; herrian, herritarrekin eta herritarren onuran jarduteko ikuspegia; hizkuntzaren inguruan –euskara batuan eta bertoko euskalkian– egindako pedagogia lana, eta urte haue- tan garai berrietara egokitzen jakin izana, besteak beste. Hori guztia jomuga argi bat izanda bideratu da: eibartarrak aldizkariaren zutabe eta protagonista nagusi bihurtzea.

Abiaturuko sasoiaren lehentasuna izaten zuen aldizkaria egiteak eta garaiz plazaratzeak, eta horretara bideratzen ziren indarrak. Gerora, ofi-

zioan trebatu ahala, proiektua sendotzea izan da helburua. Krisi garaiak ere izango ziren, baina egitasmoan sinesteak tinko eusteko indarra bermatu die etakittokideei, eta ondorioa hau da: ia hogeita hamar urteko uzta oparoa.

Horrelako fenomenoak ez dira ugari, ez gurean, ez hizkuntza gutxituetako beste kultura eta herrialdeetan ere. Beren bakantasunagatik, akademiaren arreta eta jakin-egarria piztu izan dute, eta irakasle-ikerlariok aztergai hartu ohi ditugu. Tokian tokiko hedabideen inguruan egindako makina bat ikerketak utzi du agerian batzuek eta besteek elkarrekin egin eta landu behar dutela bidea.

Ikerketa akademikoa premiazkoa da ezagutzeko zertan eta nola ari diren tokiko agerkariak, hain garrantzitsua den eginkizunean jarrai dezaten eta, aldi berean, euskal hedabideen esparrua sendotzen laguntzeko. Ezinbesteko pieza dira tokikoak euskarazko medioen sektorea ehuntzeko.

Sinetsita gaude hedabideen berri jasotzea eta medioak aztertzea dela gure lana unibertsitatean, akademiak ere berea bueltatu behar diolakoan gizarteari: analisiak, diagnostikoak, pronostikoak eta abar. Bi norabideko harreman horretan, oso eskerturik gaude ...eta kitto!-ri eta euskarazko gainerako hedabideei. Aurretiz ere ondoz ondo ibiltzea espero dugu. Ohorea izan da gure bihiarekin ekarpen txoa egitea pegora honetan. Eskerrik asko ...eta kitto!-ri idazteko gonbidapena egitearren. Jarrai dezazuela ereiten urte askoan, beste mila ale- tan fruituak jasotzeko.



Alazne Aiestaran

EHU-ko kazetaritza fakultateko irakasle eta ikerlaria



Beatriz Zabalondo

EHU-ko kazetaritza fakultateko irakasle eta ikerlaria



URKIZU ESKOLA

HAUR ETA
LEHEN HEZKUNTZA
JANTOKI ZERBITZUA

Karmen, 5 • 943 12 17 78 • 20600 EIBAR
e-maila: 012050aa@hezkuntza.net

INDUSTRIAS PAMPO

Soluzio teknikoak ALANBREan

Arane, 15 - 943 12 03 66
www.muellespampo.com



Arrate Bidea, 24
Tfnoa : 943 70 22 89
Fax : 943 20 31 98
www.itzio.es
012949aa@hezkuntza.net

Euskara putzu sakon eta ilunean,
ez dadin sekulan ito,
Euskara itxaso urdin eta zabalean,
bizi dadin behin-betiko,
euskaraz... eta kitto!

Guk euskaraz, zuk zergatik ez?

Zorionak!!!

NEKANE PASTOR HIZKUNTZ AKADEMIA

Since 1977

- Klaseak 3 urtetik gorakoentzat
 - Eskolarako laguntza
 - Cambridge azterketak
 - Summer Camp (UZTAILEAN)
- Ingalaterrara bidaiak (UZTAILEAN)
 - Enpresak

40 urte 

Pagaegi, 8 / 943 20 13 93



info@idiomasnekanepastor.com www.idiomasnekanepastor.com



J.A. MOGEL IKASTOLA

- HAUR HEZKUNTZA
Sansaburu (943 20 67 95) Argatxa (943 70 29 94)
- LEHEN HEZKUNTZA
Iturburu (Tel/Faxa: 943 20 84 87)
jamogelikastola@gmail.com
www.mogelikastola.hezkuntza.net

MOGEL ISASI BHI

- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
Isasi 37. Tel.: 943 20 30 94 Faxa: 943 20 38 97
012948aa@hezkuntza.net
www.mogelisasi.hezkuntza.net

EGUNEKO MENUA

MENU BEREZIAK

- Gosariak
- Plater konbinatuak
- Razioak
- Bokatak
- Hanburgesak

Pintxoetan aukera zabala



LANEGUNETAN 06:00etatik
ASTEBURUETAN 08:00etatik

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- | | |
|--------------------------|-------------------------------|
| 1) Kardiologia | 11) Barne Medikuntza |
| 2) Zirugia | 12) Radiologia |
| 3) Dermatologia | 13) Urologia |
| 4) Dietetika / Nutrizioa | 14) Traumatologia |
| 5) Analiisi Klinikoak | 15) Koloproktologia |
| 6) Ortodontzia | 16) Erizaintza |
| 7) Otorrinolaringologia | 17) Foto-depilazio |
| 8) Pediatria | Unitatea |
| 9) Psikiatria | 18) Ginekologia BERRIA |
| 10) Neurologia | 19) Psikologia BERRIA |

HO EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
Jardiñeta, 3
20600 Eibar

MATRIKULA LIBREA Otsailaren 1etik 15era

ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA eta INGELESA

MATRIKULA EGITEKO:
www.eoieibarheo.hezkuntza.net

ARGIBIDE GEHIAGO: **eoieibarheo@gmail.com**
943.20.06.18

...eta kitto! interneten

1992. urtean iritsi zen lehenengo ordenagailua ...eta kitto!-k Markeskuan zuen bulegora. Macintosh gaztea zen oraindik (1984ko urtarrilaren 24an merkaturatu zuen Apple enpresak lehen Mac-a). Ordenagailu hauek lan prozesua asko erraztu zuten; izan ere, ordura arte idazmakinak erabiltzen genituen testuak idazteko, eta ondoren testu guztiak berriro "pikatu" egin behar zituzten inprentan. Aldizkaria maketatze-ko, diseinatze-ko eta argazkiak digitalizatze-ko ere erabiltzen hasi ginen ordenagailu hauek, horrela prozesu guztia gure esku geldituz.

Baina gure gizartea aldatu duen fenomeno teknologiko handiena internet izan da. Internetek aldaketa handiak ekarri ditu komunikazio munduan eta gaur egun, paperean ez ezik, interneten ere argitaratzen ditu albisteak ...eta kitto!-k. Gero eta gehiago sartzen zarete gure webgunean: batzuk zuzenean eta beste batzuk Facebook edo Twitter bi-

tartez. Webgunea paperezko astekararen osagarria da. Egunero argitaratzen ditugu herriko berriak eta aktualitatea gertutik jarraitze-ko aukera ematen du. Herriko informazioaren egunerokotasunari atea zabaltzen dizkio www.etakitto.eus atariak.


Barixakura arte itxaron beharrean, egun arratsaldean www.etakitto.eus webgunean irakur dezakezue astekaria PDF formatoan. Izan ere, astekaria inprentara bidali eta ordu gutxitara webgunean ipintzen dugu. Ordenagailu, tablet edo mugikor bat eta internet konexio besterik ez duzue behar www.etakitto.eus-en sartzeko. Eibartik kanpo bizi direnen eibartarrek asko estimatzen dute astekaria internet bidez irakurtze-ko aukera.

Zenbakiei begiratzen badiegu, argazki-bildumak dira arrakasta handiena daketanak. Argazki-bildumak era askotakoak izaten dira (herrietako jaiak, kirol saiak, olentzeroren kalejira, senegalda-



ren jaialdia, Bolunburu memoria, eskararen eguna...), eta mediateka atalaren barruan aurki ditzakezue.

Herrian sortzen diren albisteetaz gain, informazio praktikoak ere ematen ditu [etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) atariak, Agenda, esate baterako. Hurrengo egunetan eta asteetan Eibarren izango diren ekitaldiak ezagutu nahi badituzue, Agenda atal horretarako aukera paregabea eskaintzen du.



Nolako edukiak eta zerbitzuak eskaintzen ditu www.etakitto.eus-ek?

- Argazki eta bideo bildumak
- Herriko AGENDA kulturala
- Hemeroteka: astekari guztiak, hauteskunde aleak, gida komertziala, Txikitto! aldizkaria, komikiak...
- Zorion agurra eta eskelak, herriko farmaziak, iragarki laburrak (lana, etxebizitzak, lokalak...), eguraldia...

Asteburuko kirol agenda eta kirol emaitzak

Jakina da Eibarren kirol talde mordo dagoela. Barixakuetan asteburuan izango diren kirol ekitaldi guztien berri ematen dugu, eta astelehenetan emaitzak ikus ditzakezue.



BIC GIPUZKOA
UP! EUSKADI

Edificio IK4-Tekniker

Iñaki Goenaga kalea, 5. EIBAR

tel.: 943 00 09 99

www.bicgipuzkoa.eus
bic@bicgipuzkoa.eus



Txirrindulari Elkarteak presidente berria hautatu zuen batzarrean

Eibarko Txirrindulari Elkarteko urteko batzar nagusian Angel Lopez izendatu zuten azken urteetan Moises Artaetxebarriak bete duen kargua hartzeko, hau da, klubeko presidente izateko. Ekitaldia CDR dendak emandako bizikleta egokitu zitzaion Elisabeth Lahidalga bazkideari emateko ere aprobetxatu zuten.

Izotz-eskalada ikastaroa

Otsailaren lehen astebururako (hilaren 4an eta 5ean) egingo den ikastarorako deia egin du Gipuzkoako Mendi Federazioak. Ikastarorak honako lau eduki izango ditu: Materiala eta tresneria, Kranpoi eta pioleten erabilera aurreratua, Progresio edo aurrerapen teknikak eta Segurtasun teknikak. Izen-emateak honako helbidean egin daitezke: <http://www.gmf-fgm.org/kurtsuak/23/lang/eusk/>



Euskal Bizikletakoek hartuko dute Itzuliaren eta Klasikoaren ardura

Euskal herriko Itzulia eta Donostiako Klasikoa antolatzen zutenen erdiek dimisioa eman dute eta proba bi horien antolaketa hemendik aurrera "eibartarren" esku geratuko da, hau da, Euskal Bizikletakoek eskura. Orain arte kargu garrantzitsuenak zituzten Diario Vasco Kirol Antolakuntzako ki-deak izan dira laga dutenak eta aurrerantzean Julian Eraso eibartarra izango da zuzendari. Hausturak ez dieaurretengo denboraldiko probei eragingo, aurretik ere "hiru urterako babesleak lotuta daudelako".



Eibar FT denboraldiko zati interesgarrienean sartu da

Neurketa ezin zailagoi egin beharko die atzo hasi eta datorren eguaztenera arte. Esku artean duzuen astekari hau inprentara bidali genuenean oraindik jokatu gabe zegoen Kopako finalaurreneko lehen partidua (atzo Madrilen jokatu beharreko At. Madril - Eibar) eta itzulerakoa datorren eguaztenean jokatu dute Ipuruan, 19:15ean hasiko den partiduan. Norgehiagoka zaila eta interesgarriaren aurrean daude Mendilibarren mutilak, beraz. Ez du garrantzi gutxiago domekan 20:45ean Ipuruan jokatu den partidua: hor Bartzelona hartuko dute Ligako lehen itzuliaren azken jardunaldiko partiduan. Zaletuendako bi aukera bikainen aurrean gaude, zailtasunak zailtasun gutxitan ikusten diren horietakoen aurrean. Ligaren erdira helduta, bestalde, taldea ondo kokatuta dago, 26 punturekin eta jaitsiera postuetatik 14 puntura. Xixonen lortutako garaipenak (2-3) lasaitasun gehiago ekarri du klubera aipatutako erronken aurrean.

Zaletuen mailako bi pilota partidu gaur Astelena frontoian

Eibarko pilotari gazteenen jokoaz gozatzeko aukera izango da gaur Astelena frontoian, bi partidurekin osatutako jaialdian. 19:15ean hasiko da Pilota Eskolako lagunartekoarekin:

hor benjamin mailako norgehiagoka izango da Ibarra-Larrarte eta Ortega-Iriondo bikoteen artean. Jarraian Gipuzkoako Errendimenduko binakako txapelketaren barruan, Eibarko Klub Deportiboko Azkargorta-Tajuelo infantil mailako bikoteak LAPKEko ordezkariari egingo diete aurre.

Bestalde, Klub Deportiboko beste ordezkariak kanpoan ere izango dituzte partidua: binakako Udaberri Txapelketako norgehiagokan, Narbaiza-Gaztañaga helduen bikoteak Oñatin jokatu du bertako Aloña Mendiko ordezkarien kontra gaur 19:00etan; eta Eskolarteko Txapelketaren barruan, infantiletan, Zubizarreta-Fuentes gure herriko bikoteak Oñatiko ordezkariak osatutakoaren aurka jokatu du Elgoibarren, horiek ere gaur 19:00etan.



Kamina eta Azkargorta.

Patronatuko osasun-zerbitzuak martxa betean dihardu

2016an Patronatuko osasun-zerbitzua beste esparru batzuetara zabaldu da eta, horrela, aurretik betetzen ez zituenez zerbitzuak eskaintzen ditu gaur egun. Osasun-azterketak dira zerbitzu horretako atal nagusia hartzen dutenak eta azken urtean 900 egin dituzte Ipurua kiroldegian, modu honetan banatuta: 450etik gora klubetako jokalariei egin zaizkie (eskubaloia, errugbia, gimnasia erritmikoa, eskia, saskibaloia, txirrindularitza, triatloia), 3. adineko 200 bat lagun ere pasatu dira sendagilearen eskuetatik (tartean hasi berriak) eta 150 bazkideetik gora ere izan dira horrelako azterketa

behar izan dutenak. Aipatutako lan hori biribiltzeko, hainbat aparatuek berritu dira, tartean esfortzu-proba egiteko erosi den bizikleta eta azken egunotan instalazioetan ezarri duten tapiz flotagarria. Horrez gain, ordenagailu berri batek proba horietako datuak modu eraginkorragoan interpretatzen ditu orain.

Patronatuko osasun-zerbitzuak beste aktibitate batzuei ere heldu di, hainbat proiektutan lanean hastearekin bat: nagusiendako jardunaldietan, esaterako, bide osasungarrien arloan; "Ibilixan" epe erdirako proiektuan, beste entitateekin elkarlanean... Eibarko Kirol Pa-



Txema Peñalba sendagilea Ipurua kiroldegiko osasun-zerbitzu buru da.

atronatuko zerbitzu horretan Eibarko eta inguruko herrietako jendea atenditzen dute, kiroldegiko bazkide izan edo ez: tartean sartzen dira 3. adinekoak, instalazioetan edozein

kirol aktibitate egiten dutenak, horrelakoetan min hartzen duten guztiak eta baita kirolarekin edo aktibitate fisikoarekin lotutako edozein zailtza dutenak ere.



Jubenil mailako taldea.



Kadete mailako taldea.

Foballeko maila nazionaleko taldeek martxa onari eusten diote

Maila nazionalean jokatzeko Eibar FTko ordezkariak denboraldi bikaina dihardute egiten eta aurten mailari eusteko ez zaie inolako arriskurik sumatzen. Bigarren mailan jokatzeko duen emakumezkoen taldeak bana berdindu zuen azken jardunaldian Ardoiren zelaian eta sail-

kapeneko bosgarren postuan dago; hurrengo jardunaldian justu atzetik duen Añorga hartuko du Unben. Mutilen taldeei dagokienez, jubenetako Ohorezko Mailan jokatzeko duen taldeak 1-2 irabazi zuen Nafarroa aldean, Txantrearen zelaian, eta sailkapeneko 7. postuan dago; hurrengo

partiduan Osasuna ihes egin duen liderra hartuko du etxean, izan daitekeen neurketa zailenetakoan. Eta kadeteen mailako Euskal Ligaren barruan, Eibarrek azken partiduan Leioarekin 1-2 galdu bazuen ere, sailkapenean 6. postuari eusten dio Kostkas taldeari bisita egin aurretik.

Saskibaloian jarduteko ate irekiak eskaintzen ditu Katu Kalek domeketan

Gazteenendako antolatutako ate irekien jardunaldiak eskaintzen jarraitzen dute Katu Kale saskibaloia taldekoek. Jardunaldi horiek domeketan izaten dira, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Gipuzkoako 3. mailan jokatzeko duen taldeak, bestalde, ez du oraindik porrotik ezagutu denboraldi honetan eta bere multzoko liderra da azken jardunaldian Donos-

tian Alde Zaharra C taldeari 55-68 irabazi eta gero. Partiduaren atsedena 27-34 irabazten heldu ziren eibartarrak eta bigarren zatian ia emaitza berarekin nagusitu ziren, horrek erakusten duen erregulartasunarekin. Anderson izan zen saskiratzaile onena, 29 punturekin. Maila igotzeko bidean ibilbide ezin zuzenagoa darabate Katu Kalekoek.





Danborradaren kontzertua domekan

Urteroko moduan, San Sebastian egunaren harira Danborradaren kontzertua emango dute Usartza txistulari taldeak, Eibarko Danborradako ordezkari talde batek eta Molto Vivace metal boskoteak. Emanaldia Coliseo antzokian izango da, 12:30ean. Egitaraua, jakina, danborradetako piezekin osatu dute: "Donostiako Martxa", "Diana Txikia", "Diana", "Eibarko Herria", "Idiarena", "Urnietako Ereserkia", "Eibarko Martxa", "Danborren Polka", "Mutriku Herria", "Retreta", "Pantxika", "Hau dek hau", "Katiuska", "Debako Martxa" eta "Tatiago".



Sendabelarren inguruko saioa

Datorren martitzenean Mentxu Amunategi bermeotarrak sendabelarrei buruzko hitzaldia emango du, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik antolatutako saioan. Azaroan eskaini zuen lore-dastaketak izan zuen harrera ona ikusita, jendeak animatuta antolatu dute bigarren saio hau. Oraingoan, baina, sendabelarrei buruz jardungo du berbetan. Izena emateko telefonoz deitu (943200918) edo emaila idatzi (elkartea@etakitto.eus).




"20 urte" erakusketaren inaugurazioa

Gaur arratsaldean, 19:00etan zabalduko ditu ateak "20 urte" erakusketak Portalean. Kultur Etxea zabaldu zutela bi hamarkada igaro direla eta, horren aitzakiarekin antolatutako erakusketa otsailaren 19ra arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era.

"Gu" antzezlanaz zapatuan

Borobil Teatroa taldearen eskutik, "Gu" umeendako antzezlanaz hartuko du Coliseoak bihar arratsaldean, 17:00etatik aurrera. Anartz Zuazuak zuzenduko duen lanean Asier Sota, Julen Vega, Imanol Espinazo eta Hanna Berry antzezleek hartuko dute parte eta sarrerak 5 euro balio du. Antzezlanak gure planetaren bidaia kontatzen du eta, beraz, protagonista nagusia Lurra da eta, besteak beste, naturak eskaintzen dizkigun gauza ederrak erakutsiko dizkie ikustera doazenei.



"Novios" gaur Mutriku

Cruz Noguerak zuzentzen duen eta Juanma Cano eta Maite Lorenzo protagonista dituen "Novios" antzezlanaz ikusteko aukera izango da Eibar eta inguruan datozen egunetan: gaur Mutriku Txalaparta tabernan eskainiko dute, 20:30ean; otsailaren 14an, berriz, Beheko Tokia jubilatutxan; eta otsailaren 23an Sutondo Labaderokua kafetegian (Bittor Sarasketa kalean). Formatu txikirako pentsatutako lana Gabonetan taularatu zuten estreinekoz, Untzagako jubilatutxan, eta orain arte oso harrera ona ari da izaten.



Gurasoentzat hitzaldia

Estaziño kalean dagoen Kenko Guneak hitzaldia antolatu du astelehenerako: 18:00etatik 20:00etara izango den saioak "Gure Seme-alaben Sexualitatea" izenburuari jarraituko dio eta izenemateak 15 euro balio du (info@kenkogunea.com).

“Emakumea eta artea” kartel lehiaketa antolatu dute

Martxoaren 8aren inguruko kartel lehiaketa antolatu du lehenengoz Andretxea Eibarko Berdintasun Zerbitzuak, Emakumeen Mahaia- ren, Arrate Kultur Elkartearen eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen laguntzarekin. Horretarako aukeratu duten gaia “Emakumea eta Artea” da eta kartel irabazlea Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruko kanpainiaren eta prestatuko duten egitarauaren irudia izango da.

Lehiaketarako kartelak Pegorara eraman behar dira, otsailaren 16ra arte. Lehiaketa deitu



dutenek aditzera emandakoari jarraituta, lehiaketarako jasotzen dituzten karteletan erakusketak egingo da martxoaren 8tik 26ra bitartean, Portaleko erakusketa aretoan. Lehiaketako irabazleari saria banatzeko ekitaldia, berriz, martxoaren 8an, 13:00etan izango da, Portaleko erakusketa gelan. Saria 400 eurokoa izango da (herriko dendetan gastatzeko erosketak txartelak). Argibide gehiagorako, Andretxeako webgunean begiratu, 943 70 08 28 telefonora deitu edo idatzi andretxea@gmail.com helbidera.



Banartek zalantzaz betetako lana eskainiko du gaur Coliseoan

Banarte Antzerki Taldeak “Dudas razonables” antzezlan taularatuko du gaur 20:30ean, Coliseoan (sarrerak 5 euro balio du). Javier Liñeraren zuzendaritzapean jardungo duten antzezleak Aitor Coello, Rafa Herce, Rosane Mateo, Loli Reñon, Dolma Romera, Isabel Rodriguez, Eduardo Falces, Eduardo Pompar, Idoia Bilbao eta Garbiñe Biurrun dira.

Lan honen abiapuntua 1954an Reginald Rosek idatzi zuen “Twelve Angry Men” telebistarako gidoia da. Hori oinarritzat

hartuta, Rafa Herce “Guernica 1913” antzezlaren egileak idatzi du. Kontatzen duen istorioaren ardatza hilketa baten inguruan erabakia hartu behar duen herri-epaimahai baten deliberazioak osatzen du. Aita labanaz hiltzeaz akusatuta dagoen gazte baten epaiketari geroztako lanak, besteak beste, akusatua errudun ala errugabe den erabakitzeak epaimahaiakideei sortzen dizkien zalantzak eta bestelako buruhausteak erakutsiko dizkio publikoari.

San Blas ikastaroa eta lehiaketa antolatu dira


Arrate Kultur Elkartek eta ...eta kitto!-k San Blas ikastaroa eta lehiaketa antolatu dituzte elkarlanean. Ikastaroa Portalean izango da eta saio bi egingo dira: urtarrilak 26an, 18:00etan (elebitan, batez ere helduei zuzenduta) eta 28an, 10:00etan (hau umeekin batera joan nahi duten gurasoei zuzenduta, horretarako aukera izan dezaten antolatu dute). Lehiaketa, berriz, San Blas egunean bertan (otsailak 3) egingo da, Topalekuan, 17:00etatik 19:00etara. Izena emateko emaila idatzi edo telefonoz deitu antolatzaileei: elkartea@etakitto.eus / 943200918 edo arratekultu@gmail.com / 943202299.



Pagatxakoen batzarra Koru Gazteak agurtu zuen

Pagatxa elkarteak urteko batzarra egin zuten martitzen Portalean eta, hori amaitu eta jarraian, gerturatutako bazkideek pozarren entzun zituzten Elena Martin Lapirak zuzentzen duen Eibarko Koru Gazteak eskainitako kantuak. Hori dela eta, elkarteak ordezkariak euren esker ona azaldu nahi die zuzendariari zein kantatzera jain diren neska-mutilei, “saio bikaina izan da eta”.





“Idiot Txou” antzerkia gaur ERMUAN

Ados Teatroa konpainiak ‘Idiot Txou’ goiburua duen muntaia eskainiko du Ermuko Antzokian gaur 20:15etik aurrera. ‘Idiot Txou’ ikuskizunean hainbat aktore ezagunek parte hartzen dute: Josean Bengoetxeak, Javier Merinok, Dorleta Urretabizkaik eta Asier Hormazak, Garbi Losadaren zuzendaritzapean. Orotariko publikoarentzat aproposa den komedia da. Sarrerak hamar euro balio du.



Itzalak kontzertuan ELGETAKO Spaloian

Bihar, zapatua, Itzalak taldearen kontzertua izango da Elgetako Spaloia kafe antzokian, 19:30etik aurrera. Sarrera doan izango da.



Eraso + Humus ELORRIOKO gaztetxean

Eraso + Humus taldeek kontzertua emango dute gaur, barixakua, 22:00etan Elorrioko gaztetxean.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Maria Rivas Fernandez. 97 urte. 2017-I-6.
- Estefania Rodriguez Borque. 90 urte. 2017-I-11.
- Maria Solozabal Antxia. 85 urte. 2017-I-12.
- Ines Fernandez Salgado. 51 urte. 2017-I-13.
- M^a Carmen Lamikiz Urrutxua. 81 urte. 2017-I-14.
- Marina Elorza Andueza. 102 urte. 2017-I-15.
- Patxi Guede Eibar. 58 urte. 2017-I-15.
- Felisa Amesti Arrieta. 96 urte. 2017-I-15.
- Ignacio Bidosola Anitua. 88 urte. 2017-I-15.
- Leopoldo Lopez Morante. 90 urte. 2017-I-16.
- Luciano Martinez Atanes. 80 urte. 2017-I-16.
- Aitor Uriguen Mantecon. 50 urte. 2017-I-16.
- Javier Gurrutxaga Lizundia. 57 urte. 2017-I-16.
- Aurea Sanchez Blanco. 84 urte. 2017-I-17.
- Francisco Moro Melero. 51 urte. 2017-I-18.

jaiotakoak

- Eneko Samper Romero. 2017-I-11.
- Haritz Alvarez Herrera. 2017-I-13.
- Nora Irure Vesga. 2017-I-14.
- Valeria Merino Arnaz. 2017-I-15.
- Alain Baglietto Lazpita. 2017-I-15.

farmaziak

- Barixakua 20
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 21
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Domeka 22
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Astelehena 23
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Martitzena 24
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 25
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguena 26
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Barixakua 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI - 2017AN-
Mandiola (S. Agustin, 3)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMAITZA

9	3	4	6	2	7	1	5	8
6	1	7	5	8	3	2	4	9
8	5	2	4	1	9	7	6	3
1	2	6	8	9	5	4	3	7
3	7	8	2	6	4	9	8	1
4	8	9	3	7	1	6	2	5
2	9	8	7	3	6	5	1	4
7	4	3	1	5	2	8	9	6
5	6	1	9	4	8	3	7	2

SUDOKUA

5	2	7			1			
	4						1	
9	8				4			5
7	6		1		9			
			5		8		4	7
1			3				7	9
	7						6	
			7			1	5	4

Barixakua 20

ATE IREKIAK

16:00. Ate irekien jardunaldiak, museoaren 10. urteurrena dela eta. Armagintzaren Museoa.

EIBARKO KANTUZALEAK

17:00. Abesbatzaren emanaldia. San Andres egoitzan.

INAUGURAZIOA

19:00. "20 urte" erakusketa. Portalean (erakusketa aretoan).

HITZALDIA

19:00. "Movimiento popular", Podemos-Ahal Duguren eskutik. Hizlariak: Julen Bollain, Nagua Alba eta Iñigo Errejon. Portalean (areto nagusian).

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

ANTZERKIA

20:30. "Dudas razonables" antzezlan, Banarte Antzerki Taldearen eskutik. 5 euro. Coliseoan.

Zapatua 21

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelena frontoian.

GURE ESKU DAGO

12:00. Eskualde mailako aurkezpena. Portalean.

MUSEOAK 10 URTE

12:30. Armagintza Museoaren X. urteurrenaren harira egindako bideoaren aurkezpena. Erakusketa iraukorra ezagutzeko doako bisita gidatuak (**17:00**etan euskeraz eta **18:30**ean gazteleraz). Armagintzaren Museoa.

ANTZERKIA

17:00. "Gu" umeendako antzezlan, Borobil Teatroaren eskutik. Coliseoan.

UMEENTZAKO ZINEA

17:30. "Mascotas". Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

KIROLA FAMILIAN

17:30. Ipurua kiroldegian.

Domeka 22

AFESD ELKARTEA

12:00. AFESD, diagnostiko barik gaixorik dauden umeen elkartearen eskutik, merkadilloa, txosna (pintxo eta edariekin), Iniestak sinatutako kamisetaren zozketarako rifen salmenta (euro bat)... Untzagan (udaletxeko arkupeetan).

DANBORRADA

12:30. Kontzertua. Usartza txistulari taldearen, Eibarko Danborradaren eta Molto Vivace taldearen eskutik. Coliseoan.

ATE IREKIAK

16:00. Ate irekien jardunaldiak, museoaren 10. urteurrena dela eta. Armagintzaren Museoa.

MARRAZKI LEHIAKETA

16:30. XXII. Gabonetako Marrazki Lehiaketa, umeendako. As Burgas Galiziako Etxean.

KIROLA FAMILIAN

17:30. Ipurua kiroldegian.

Astehena 23

HITZALDIA

18:00/20:00. "Gure seme-alaben sexualitatea". Izen-ematea: info@kenko.gunea.com (15 euro). Kenko gunean.

IKASTAROA

19:30. Argazkilaritza-ikastaroa. Arrate Kultur Elkartearen.

Martitzena 24

IKASTEN

10:00. "Caravaggio 2" hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra. **17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

TAILERRA

18:30. "Historias de mujeres": Rita Levi Montalcini. Portalean.

ERABAKI BIOT

19:00. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Arrate Kultur Elkartearen.

HITZALDIA

19:00. Sendabelarrei buruzkoa, Mentxu Amunategiren eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokalean (Urkizu, 11 solairuarterean).

Eguaztena 25

IKASTEN

09:50. Irteera: Zestoa-Azkoitia.

IKASTAROA

19:30. Argazkilaritza-ikastaroa. Arrate Kultur Elkartearen.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 26

IKASTEN

10:00. "Bajo el mismo techo - Cambio climático" hitzaldia, Inma Mugerzaren eskutik. Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

17:45. Dantzaldia. Untzagako jubilatue txean.

IKASTAROA

18:00. San Blas ikastaroa (elebitan), ...eta kitto! Euskara Elkartearen eta Arrate Kultur Elkartearen eskutik. Portalean.

HITZALDIA

19:00. Eibarko Sarek antolatuta. Gaiak: Ibon Muñoaren egoera, salbuespeneko legedia, dispersioa, gaixo larriak... Hizlariak: Idoia Ibero eta Aiert Larrarte. Portalean (areto nagusian).

HITZALDIA

19:30. "Eibar-Peru. Elkarkidetzaren emaitzak zuzenean", Egoaziaren eskutik. Hizlaria: Wilmer Bermejo, CIPCA (Peru) Garapenerako Lankidetzaren Erakundeko proiektuen koordinatzailea. Udaletxean (pleno aretoan).

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Erakusketak

Urtarrilaren 31ra arte:

- JAVIER ORTIZEN argazkiak. (*Portalea tabernan*)
- PILAR PALACIOSEN argazkiak. (*El Ambigú-n*)
- LUIS EPELDEREN argazkiak. (*Klub Deportiboan*)

Otsailaren 7ra arte:

- PHOTOBAT BILBOKO ARGAZKI ELKARTEAREN erakusketa kolektiboa. (*El Corte Ingles-ean*)

Otsailaren 19ra arte:

- "20 URTE" erakusketa. (*Portalean*)


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, AINHOA, aurreko astian hiru urte bete zenduazena. Zure famelixaren eta, batez be, amatxoren partez.



Zorionak, NAHIA, gure printzesak astelehenian 5 urte egingo ditte-eta. Musu bat aitaxo, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, LUKA, gaur bost urte egin dozuz-eta, bihotza. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, ALEX!!!, domekan sei urte beteko dozuzelako. Musu haundi asko famelixaren eta, batez be, Liberen partez.



Zorionak, ANE Sologaitua, domekan zortzi urte beteko dozuz-eta. Musu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, IRAIA, hillairen 12xan bost urte egin zenduazena. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, atzo 11 urte bete zenduazena. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Iraiaren partez.



Zorionak, ANDER, atzo 11 urte egin zenduazena. Asko maite zaittugu. Etxekuen partez.




Zorionak, IUNE NADIA, haraiñegun zortzi urte egin zenduazelako. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, INTZA, gure etxeko printzesak astelehenian 2 urte bete zittuan-eta. Ederto pasau genduan! Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, MANEXen partez.



Zorionak, MAIALEN (eguenian, 5 urte) eta NORA (bixar, 9 urte), urtiak betetziazatik. Patxo bana famelixaren eta, batez be, Jon eta Uxueren partez.



Zorionak, NAHIA eta IRATI!!!, urtarillaren 14an urtetxua bete zenduzena. Zuen famelixaren partez.



Zorionak, JURGEN!, domekan bost urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren artz.



Ongi etorri, AIUR Sarasketa Santos, 17tik gure artian zagoz-eta. Musuak Santi eta Petri aitxitxamamen eta Izaro eta Ederren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

21ean: 19:45, 22:30

22an: 20:00

23an: 20:30

"Vuelta a casa de mi madre"

Zuzendaria: Eric Lavaine



(1 ARETOAN)

21ean: 19:45, 22:30

22an: 17:00, 20:00

23an: 20:30

"Belleza oculta"

Zuzendaria: David Frankel



(ANTZOKIAN)

21ean: 17:00(1), 19:45, 22:30

22an: 17:00(1 aretoa), 20:00

23an: 20:30

"Contratiempo"

Zuzendaria: Oriol Paulo



21ean: 17:00 (2 aretoa)

22an: 17:00 (antzokia)

"Axel, heroi txikia"

Zuzendaria: Leo Lee





Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Txaltxa-Zelai kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 6. solairua, igogailuarekin. Terraza eta ganbarra. Tel. 665-733954 eta 629-449646.
- Baserria salgai Bergarako Ubera auzoan. 15 hektareako terrenoarekin. Berriztuta eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 653-332125. Nerea..
- Baserria salgai Elgoibarko San Roke auzoan. Lur-sailarekin: 5,8 hektarea. Tel. 650-749722 eta 943-203284.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 697-754174.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-252750.
- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. 2/3 logelekoa. Tel. 652-532589.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Autoak sartzeko pabilioia behar dut: 100 m² inguruko lokala. Tel. 671-846270. Ibon

3.2. Errentan

- 18 urtetik gorako gazteentzat aukerako lokala alokagai. Ondo prestatuta. Tel. 600-890245.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 620-757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da sukaldari edo sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbitzaile moduan. Esperientzia. Tel. 630-534587. Arantza.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-221729.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-552986.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 631-979558.
- Neska arduratsua eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 671-366568.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 695-917617.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-793101.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-988471.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 672-442318.
- Emakumea eskaintzen da gausez nagusiak zaintzeko. Tel. 656-866255.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 685-780806.
- Neska eskaintzen da garbiketara-lanak egiteko eta dendari jarduteko. Esperientzia. Tel. 639-423493.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-047826.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 632-384798.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-430110.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 695-180539.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-057185.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-562461.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-318570.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-247899.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-818176.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-329868.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta dendari moduan. Tel. 632-426847.
- Mutila eskaintzen da peoi moduan, zaintzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-649850.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 659-908513.
- Mutila eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 631-414397.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko Eibarren edo inguruan. Tel. 606-906729.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-804895.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia eta formakuntza. Tel. 671-989434.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko etabar. Tel. 656-788741.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 640-315602.

4.2. Langile bila

- Kamarera/oa behar da lanaldi osorako Eibarko taberna batean. eibarkafe@gmail.com
- Bertoko emakumea behar da astelehenerik eguenera (08:00-10:00) ume bi jantzi, armozua eman eta eskolara eramateko. Tel. 687-063698.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Eibarko akademiak frantseseko irakaslea behar du. Esperientzia ezinbestekoa. Bidali curriculum: irakasleebarkCV@gmail.com
- Alemanierazko irakaslea behar du. Tel. 676-483118.

5.2. Eskaintzak

- Arkitektura ikasketak ditut eta Batxilergo Teknikoko eta DBH 3. eta 4. mailetako klase partikularrak (Matematika, Fisika eta Kimika) emango nituzke. Tel. 679-843282.
- Marraketa Teknikoko klase partikularrak ematen dira. LH, Batxilergo eta Tekniko Mekanikoko maila guztiak. Tel. 675-713153.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailetako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Safretti bioetanol tximinia salgai. Prezio negoziagarria. Tel. 648-180634.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Abenduan Eskularen Valmassoi markako betaurrekoak (irakurtzekoak) laga zituen bertatik pasa daiteke jasotzera. Tel. 943-204000.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

www.innovadentalclinicas.com

**innovadental**
clinicas

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

Lantalde bat,
ilusio bat
eta milla ale.

Zorionak
...eta kitto!



Orain arte moduan,
Udala bidelagun izango duzue
euskararen eta informazioaren
alde biharra egiteko.

EUSKARAZ GOZATU!